



uk

231. zenbakia / 2013ko apirilaren 22a

URTEAN

20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki

Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri

Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean

Urte osoan argazki zahar eta barriak

Urte osoan zure proiektuak lau haizetara

Urtean 20 euro

uk

www.ukaldizkaria.biz

✓

neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK 94 491 13 37

UK uk@aldizkaria.biz

Dacia Duster

10.200€ - tik aurrera¹



Dacia Lodgy berria

9.200€ - tik aurrera¹



Dacia

GRUPE RENAULT

f

Dacia España

YouTube

Dacia ESP

Zatoz Dacia Dokker berria ezagutzera

3 años²

urteko bermea

edo 100.000 km

1) Eskaintza hau penintsulan eta Balearretan da baliagarria Duster Base 1.6 77kW (105CV) edo Lodgy Base 1.6 60kW (85CV) ibilgailu berri bat erosten duten partikular eta autonomoentzat, zergak barne eta RCI Banque-rekin finantzatzuz gero (gutxienez finantzatu beharreko zenbatekoa: 4.000€). RECSA-k eskainitako deskontua, finantziazioari lotuta dagoena. Eskaintzak 13/04/30era arte iraungo du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin. Irudiko modelooren prezioa: Duster Laureate 1.6 77 kW, Pack Look, PSPa: 13.477€. Irudiko modelooren prezioa: Lodgy Laureate TCe 85 kW, PSPa: 14.000€. 2) Lehen bi urteetarako bermea kilometraje-mugarik gabea da. Bigarren urtetik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.

Dacia Duster: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,8tik 8,0ra arte. CO2 emisioa (gr/km) 126tik 185era bitartekoa.

Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO2 emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa.

BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO

IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

Dacia gomendatu



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julien Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentsaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritz Bergara, Algotako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Getxo

UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara zerbitzua



Leioa

UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua



BERMEO

UDALA



Erandio

UDALA



Gospeteko

Udalak



Urdulizko

UDALA



Urdulizko

UDALA



Plentziako

UDALA



Aldizkari honek

Eusko Jaurilaritzaren

Kultura Sailaren

dirulaguntza jaso du



BFA

DFB

Bizkaiko Foru Aldundia

Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila

Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.

5. IRUDIA. Antzerkiaren Nazioarteko Eguna Gebxon.

6. FACEGUK. Zer eskatzen diozu udabariari?

7. LEHEN ETA ORAIN. Plentzia.

8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.

11. ERRETRATUA. Patxi Lasa.

12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.

25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ARGAZKIA. Botatako hegazkin errepublikarra Sopelan.

28. BERBETAN. Merte Aizpurua.

32. FOTOGRAFIA. Ane Basagoiti eta batzuen artean.

40. SAKONEAN. Bimep proiektua Lemoizen; itsaso-energia.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Mikrofilm-en izena-emoteko epea zabalik.

43. MUSIKA. MAZ Basauri jaialdia.

44. LIBURUAK. Kobayashiren 1928-03-15 euskaraz.

45. KIROLAK. Virginia Diaz.

46. ELKARRIZKETA. Eskubide sozialen aldeko koordinakundea.

47. JENTILKOBA. Tartalo.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Arrautza patatakaz.

50. HOROSKOPOA.

51. KOMIKIA. Dogan Gozel.

52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.

53. FLASH BACK. Getxoko Itxas-Argia dantza taldea Gatikan, 1980.

54. AITORMENAK. Iñake Irastorza.

Azala: Ane Basagoiti

www.ukaldizkaria.biz

30 Merte Aizpurua

Berbetan

Udalbiltzako, Euskal Herriko Udalen eta hautetsien Biltzarreko presiden-teagaz aro barriaz egin dugu berba.

11 Patxi Lasa

54 Iñake Irastorza

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail.....

Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

UK 3

Leihatila

> Amaia Arriaga

Jarlekuak

Azken hamarkadan nabarmen ugaritu dira kaleko jesarlekuak gurean. Sedentarismoaren apologia iruditu zitzaidan Erandioko metro geltokiaren aurreko zabalgunea, obrak egin ostean egurrezko jarleku luze ugarirekin hornitu zutenean. Eta aitortzen dut jesarri ez eze, inoiz, arratsaldeko eguzki epeletan, bertan etzanda ere egon izan naizela, beste batzuetan herriko beste non edo nongo jarlekuetan ere etzan izan naizen moduan, inori enbarazurik egin barik, uestez behintzat.

Orain, baina, kaleko jarlekuak diren horretarako barik beste ezertarako erabiltzea debekatu dute, eta nik jakin gura nuke debeku hori aintzat hartzeko eskatu duenak zer irudi mingarri daukan buruan, zer egiteko larri egiten den gure herriko jarlekuetan arau hori beharrezkotzat jotzeko. Sasoi bateko eskolako maisuaren moduan etorriko ote zaigu polizia, ondo jesartzeko agintzen? Atezuan egon beharko.

Andoni Egañak harritu egin gintuen BECeko finalean aulkia gaitzat emon eta behiak jezteko aulki txikiarena kantatu zuenean. Agian baten batek kaleko aulkiak aprobetxatu ditu behiak hurbildu eta jezteko.

gu geu

Korrika eta ArgIHizkiak

Korrika Uribe Kostatik igaro zeneko argazkiak ekarri ditugu zenbaki honetara. Jakin badakigu, hainbat eta hainbat horiek ikusteko irrikitan zaudetela, galdezka ibili zarete eta!! Kontua da aurreko zenbakia inprentan zegoela Korrika pasatu orduko, eta ostean, zintzozintzoak garenez, Aste Santuko oporrak izan ditugula... Horrenbestez, horiek eta zuen UKrekiko “interesa” berpizteko asmoa (kar, kar) izan dira zuek irrikitan zain izateko arrazoiak.

Bestalde, aurten ere, argazkietan oinarritutako euskarazko testu laburren ArgIHizkiak lehiaketa antolatu dugu hainbat elkartek eta erakundek. Maiatzaren 1etik 31ra duzue lehiaketa horretara zuen testuak bidaltzeko aukera (info+: Talaia atalean eta kontrazaleko iragarkian). Hala, parte hartzera animatu gura zaituztegu! Zuen testuen zain, irrikitan, gaude!!!

UK-ko lan-taldea

Iritzia

Martxoaren 23an Durangon Batzar Nagusia egin zuen Euskara Elkarteentopaguneak; ordura arteko gogoeten eta erabakien barri jasotzen du iritzi honek.

Euskaltzaleen Topaguneak, beharra eta nahia

Esango digute gaur egun gizarte mugimendua gainbeheran dagoela, bere garairik onenak pasa zirela. Pentsatuko dute euskararen normalizazioan erakunde publikoek nahikoa egiten dutela, ardura dutela, eta herritarrok ez dugula egin-kizun berezirik gaur egun. Iritziko diote euskararen auzia norbanakoen ardura kontua dela, hiztunok dugula egitearen edo ez egitearen erantzukizuna. Aldarrikatuko dute hizkuntza politika dela auzi honen guztiaren giltza, hizkuntza politika egokiak euskararen normalizazioa ekarriko duela. Eta gu sinetsita gaude gauzak ez direla horrela, edo ez direla horrela bakarrik.

Gizarte mugimendua apaldua dago arlo gehienetan azken urteetan, euskaldunon elkartetan ere nabaritu dugu hori; baina era berean, gizarte mugimendu modura indartzeko beharra inoiz baino agerikoagoa da. Behar horretatik abiatu genituen gure hausnarketak Topagunean eta gogo horretatik ari gara euskara elkarteent multzoa zena euskaltzaleen bilgune izango den gizarte mugimendu artikulatu eta saretua bihurtu nahian. Izan ere, uneak eskatzen du herriz herri antolatutako euskaldunon sareak Euskal

Herri mailako mugimenduan (elkargune baino gehiago izango den mugimenduan) antolatu eta bi planoetako lanak uztartzea.

Euskaltzaleon ardurak zeresan handia du hizkuntza komunitate honen etorkizuneko bilakaeran. Euskaltzaleon arduraz ari garenean ardura pertsonalaz eta kolektiboaz ari gara, hamarkadatan garena izatera ekarri gaituen erantzukizunaz. Etxean edo kalean apustu pertsonalak egiten dituzten euskaltzaileek eragin nabarmena dute hizkuntzaren garapenean, baina ahalegin kolektiborik gabe, ez ginateke gauden lekuan egongo hizkuntza komunitate modura. Euskara elkarteek gain, ikastolak, gau-eskolak eta beste hainbeste jaio ziren duela hainbat urte ahalegin kolektibo horretatik; politika publikoetan euskarak bere lekua irabazi zuen baita komunitatearen bultzadatik ere. Euskaltzale antolatuon funtzioa da herritarren atxikimendu eta konpromisoa sustatzea.

Baina hizkuntza eta hizkuntza-komunitatearen garapena ez dago hiztunen ahaleginaren menpe bakarrik. Erakunde publikoen ahaleginik eta politika zein plangintza publikorik gabe ere ez dago normalizaziorik. Eta gure funtzioa, gizarte mugimenduena, politika horiek sustatzea eta ordezkari politikoengan eragitea da.

Azken finean, hizkuntza-politika egokia eta gizartearen ardura dira euskaldunon etorkizunaren bi osagai nagusiak, eta bietarako funtsezkoa da gizarte mugimendu indartsu, antolatu, eragile eta ilusionagarria martxan izatea.

Tokian tokiko euskaldun zein euskaltzaleon topaguneek kontzientzia eta konpromiso horretatik abiatuko ditugu hurrengo hilabeteotako ekimenak eta euskaltzale guztioi, inoiz baino gehiago, gurekin bat egiteko deia luzatzen dizuegu.

Iker Martinez de Lagos (Topagunea)

[irudia]



ALGORTA, 2013KO MARTXOAREN 27AN

Gogor jo! / Martxoaren 27an ospatu ohi da Antzerkiaren Munduko Eguna eta Getxoko Utopian antzerki eskola kalera urten da oraingoan ere, eguna herritarrakaz batera ospatzeko. Baina marxokoa ez zen izan ohiko emanaldia: artea baritasuna da, gauza barriak sortzea, eta Utopian-ek horri buruz badaki zerbait. Horregatik, perkusio talde sortu-barria aurkeztu zuen, kalejira batagaz: Gexxo Samba Skull da bere izena eta danborren doinuez gitoru zuen Algortako erdigunea. Amaieran, ospakizunaren gaiari zuzenean helduz, *Curriculum*s antzerki-ekimena egin zuten antzerki-teknikako ikasleek, metroaren alboan. ○ / Argazkia: Ane Basagoiti

Zer eskatzen diozu udabarriari?

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!



Maitane Susaeta

> **Magisteritza-ikaslea**

Eguraldi ona eskatuko nioke udabarriari, eta momentu onak pasatu ahal izatea lagunekin. Hainbeste euri eta hotzekin nekatuta nago dagoeneko eta nahiago dut eguzkiaren argi eta beroa: eguraldi ona dagoenean hobeto pasatzen dut.



Marina Rivera

> **Magisteritza-ikaslea**

HABEren 3. Hizkuntza Eskakizuna gainditzea, laster dator-eta azterketa. Urteak daroadaz prestatzen, iaz bigarren maila gainditu nuen, eta ea oraingoan ere ondo egiten dudan; esperantza badaukat, gero geroakoak. Karrerako gaiak gainditzea ere eskatuko nioke, uda ona igaro ahal izateko.



Patricia Ortiz

> **Batxilergo-ikaslea**

Nik eskatuko nioke selektibitatea gainditzea, hori da udabarriko helburua: Batxilergoko bigarren maila ez da erraza eta dena amaitutakoan udan opor hartu ahal izango dut; gaindituz gero askoz gehiago gozatu ahalko dut uda, horixe da ikasteko motibazioa.



Alain Beraza

> **Argazkigintza-ikaslea**

Eskatuko nuke jendeak txipa aldatzea eta ea zabaltzen diogun atea euskarari, Korrikaren kontuarekin. Korrika aitzakia ona da euskaraz egiten hasteko. Bihar igaroko da hemendik, ea posible den klasera piper egitea parte hartu ahal izateko.



Leire Jimenez

> **Haur Hezkuntza ikaslea**

Azterketak aurreratzea, horrela lehenago hartuko nuke opor. Haur Hezkuntza ikasten ari naiz eta maiatzean dauzkatz azterketak. Beraz, Aste Santuan opor gitxi, ikasten egongo naiz-eta. Horregatik eskertuko nuke udako oporrak lehenbailehen hastea.



Aritz Sesumaga

> **Nautika ikaslea**

Klaseak lehenbailehen amaitzea opor hartu ahal izateko, eta eguraldi ona opor horiek gehiago gozatzeko, negu txarra eduki dugu-eta. Parrandarako tarte izatea? Horretarako ikasi behar lehena, azterketak gainditzeko.



Iraganez doa denbora* beti / ELEIZ ENPARANTZA, PLENTZIA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kurtze



Kurtze, 2013ko martxoa

Testua: **Josu Landeta** / Argazkia: **Hodei Torres**

* Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Argazki triste honi begira
pentsatu doten legetxe,
gure iragana eta geroa
kolokan dagoz hementxe
“banu, balego ta balitz” kartel
koloretsuan Jauretxe.
Pasa barri dan Aste Santuak
ikurra izan dau hortxe:
behin Jesukristok izan ei zeuen
gizakion zama kurtze,
gure inguruan diru goseak
gaur izena deko Kurtze.

Baserri zaharrak lan latza eukan
eta ez hainbat sosegu,
natur latzak ta aro zoroak
izanik hainbat endredu.
Orain txaletak sufrimendua
bihurtu behar dau zeru?
Baratza, atiko eta portxea
pagatu litekez karu;
ama-lurraren lan izerdiak
aske egiten gintuen gu,
baina ama hilda zoru eraikiak
egin ahal gaitu esklabu.

Tartean banku eta eraikuntza
enpresak daukeela parte,
autogestio ta herri legeak
bizi dakuz txit aparte.
Landa izeneko alkate andrea:
hau dogu zorion ate?
Bizi maila onak ekarri dosku
hamaika zor eta kalte;
zure izena eta izana
ondo lotu, berba bete,
Landa zaren lez ez egon lotan
landak porlan egin arte.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK
19,90 €
BEZ BARNE

***cianoplan**
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

lehiaketa > argiHizkiak, bigarren urtez

Aurten ere argazkietan oinarritutako euskarazko testu laburren ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu. Iaz Getxon egin-dako lehiaketa eta ondorengo erakusketa, aurten, Uribe Kostara zabaldu da; hala, eskualdeko argazkilarien eta hainbat el-karte zein erakunderen parte hartzeagaz gauzatuko da ekimena: Egizu Getxo Eus-kaldun elkarteak eta UK aldizkariak an-tolatuta, Leioako eta Erandioko udala-

kaz, Uribe Kostako Mankomunitateagaz eta (besteak beste) Berbots, Berbalamiñe, Bizarra Lepoan eta Aitxu! euskara elkar-teakaz elkarlanean. Argazkilari uribekos-tarrek bidalitako irudiak laster egongo di-ra ikusgai Egizuren webgunean, eta horiek oinarri idatzi beharko diren testu labur-laburrak edo laburrak bidaltzeko epea maiatzaren 1etik 31ra bitartekoa da. o

Info+: www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak



Kartel iragarlea

herri-krosa > saharar herriaren alde

Getxoko Sahararen aldeko Atfal elkartek eta Getxo Atletismo taldeak VII. Getxo Pro-Sahara herri-krosa antolatu dute maiatzaren 5erako. Goizeko 11:30ean ipini dute hitzordua Ereagako hondartza parean. Han egongo dira urtera eta helmuga, baina amaierara heldu orduko 8 kilometroko ibilbidea bete beharko dute korrikalariek, gutxi gorabehera honako hau: Ereagatik urten eta Portu Zaharrera

abiatu, han buelta emon eta Ereagarantz barriro, gero zuzen jarraitu Bizkaia Zubiraino, heltzean barriro itzultzeko bidea hartu eta, azken txanpari ekinez, Ereagako helmugaraino. Izen-emotea Kantxa Kirol Moda eta Deportes Bikila dendetan egin daiteke (lasterketa hasi baino 20 minutu lehenagora arte), 5 euro ordaindu behar dira kamiseta eta zenbakia eskuratzeko. o

Info+: **658 751 359**



Maiatzeko lehenengo domekan egingo da

hiztegi batua > azken barriztapena sarean

Hiztegi Batuaren azkeneko bertsioa sareratu du Euskaltzaindiak. Hiztegiaren paperezko azken edizioa orain hiru urte kaleratu zen; orduantxe, bigarren itzulia egiten zebiltzan, eta onartu ahala, aldiro-aldiro, berba-zerrenda barriak sartzen zizutzen Hiztegi Batuan. Aurten amaitu dute bigarren itzuli hori, eta martxo hasieratik sarean dago kontsultagai. Hala, 2.763 sarrera eta 508 azpisarrera gehitu

zaizkio Hiztegi Batuari, eta guztira, 42.942 forma arautu (36.845 hiztegi-sarrera eta 6.097 azpisarrera) erabiltzaile guztien esku ipini ditu Akademiak webgunean. Andoni Sagarnak eta Miriam Urkiak aurkeztu zuten azken bertsioa; Xabier Kintana, Miren Azkarate, Pello Salaburu, Patxi Uribarren eta Ibon Sarasola Hiztegi Batua (2. itzulia) Batzorde Ahaldunduko kideakaz batera. o



Info+: www.euskaltzaindia.net

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com /Tf. (+34) 943 140 143

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika!
ezazu!

**Gidabaimena
euskaraz
ateratzeak
saria dakar!**

100 litroko erregai-txartela.
Asteburuko egonaldia landa-etxe batean.
iPad 3 bidaia eta ibilbideen
aplikazioak sartuta.

Estreina ezazu atzeko
jesarlekua behar duzun guztiarekin!

**Ikasi
eta
irabazi!**

Galdetu zure autoeskolan edo euskara zerbitzuan!
Erandio: Altzaga, Arias, Astrabudua, Erandio eta Gaztedi. **Getxo:** Algorta, Amezi, Arias, Getxo, San Inazio eta Uribe Kosta.
Plentzia: Uribe Kosta. **Sopela:** Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta. **Urduliz:** Kaiku.

URIBE KOSTA K O
MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS
ZERBITZU MANDAGUTATZA
KAPARRA · KERRABU · GULLU · JANDU · PLENTZIA · SOPELANA · URDULIZ

Getxo
bizi ezazu

EUSKARA BIZI

ERANDIO
ELIZATEKO LIBRARI
MONUMENTO DE LA HERENCIA DE EGIPTO
BIZI K A I A

ALKARBIDE
Itxako Zuzenak Schreyer, Miguera

BFA DFB
Bakelko Foru Aldundia
Departamentu de Euzkadi

Sopelana
Sopelana K O

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUEL
Euzko Elkartea
Asociación de Euzko Elkartak



“Euskalduntzearen aldeko apustu sendoa egin genuen, eta niri egokitu zitzaidan zuzendari lana egitea”

Patxi Lasa Etxezarreta > Hezkuntza eta euskararen saltsan

“**Gauzak alderik** onenetik ikusteko joera duena”. Horrela definitzen du hiztegiak ‘baikor’ berba. Eta argazkiak lagunduta etorriko balitz, agian Patxi Lasa algortarraren argazkia ekarriko luke: “*Ez diot inori boterea ematen niri ilusioa kentzeko... gora-beherakaz, baina baikor beti!*”. Lasak hamahiru urte daroa Andra Mari Ikastetxeko zuzendari, lehenengo bederatzi urtez, eta gero beste lau: “*Zuzendari sartu nintzenean, euskararen egoera gatazkatsua zen. Erabakiak hartu behar ziren eskoletan: talde bat sortu eta euskalduntzearen aldeko apustu sendoa egin genuen, eta niri egokitu zitzaidan zuzendari lana egitea*”. Hezkuntza du ofizio eta bokazio; Ernio magaleko Bidania herri gipuzkoarrean jaioa, hezkuntzagaz lehenengo kontaktua San Inazioko gau-eskolan izan zuen: “*Hura ‘territorio apatxe’-a zen. Gau-eskola euskaltegi bihurtu zenean, irakasle guztiak gau-eskolako ikasleak izandakoak ziren*”. Laster, baina, erretiroa hartzeko sasoia izango du, “*Rajoyren baimenaz*”, baina algortarra ez da aspertzen diren horietakoa, hamaika saltsatan dabil: “*Eta gero, denbora dudanean askoz gehiago! Aberatsa da denbora duena!*”. Hamaika saltsa, baina beti osagai bi: hezkuntza eta euskara. Barnetegi ibiltaria, aurkezle lanak edo Egizuren sOrtua proiektua: “*Ortu ekologiko eta euskararen uztarketa horretan, lurrarekiko lotura berreskuratu dut, eta porruak noiz landatu behar diren ikasi!*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Ane Basagoiti**

AktibaTU!, kirola, kultura eta aisia

Kultur, kirol eta aisialdi osasuntsurako jardueren programa da AktibaTU!, dendak eta kaleak dinamizatzeko; apirilaren 26an abiatuko da xake-txapelketa tabernen terrazetan

Hiru arlo batuko ditu Udalak Getxo AktibaTU! ekimenaren baitan: kultura, kirola eta aisialdia. Asmoa da kaleak dinamizatzea eta herritarrek sentsibilizatzea. Horretarako ohiko guneetatik kalera aterako dituzte kirol eta kultur jarduerak, herritarrengana hurbilduz. Jardueren artean, **besteak beste: xake-txapelketa, kirol-jarduerak, sukaldaritza-lehiaketa edota artista gazteen erakusketak tabernetan.**

Apirilaren 26an abiatuko da Getxo AktibaTU! ekimena: kultur, kirol eta aisialdi osasuntsurako jardueren programa da eta dendak zein kaleak dinamizatzeko asmoa dauka. Helburua da *“herriko espazioez gozatzea eta tokiko komertzioa erabiltzea, kirolaz gozatzea ohiko kirol instalazioetatik kanpo, herritarrek sentsibilizatzea ohitura osasuntsuak hartzeko beharraz eta artista gazteen gaitasuna ezagutzera emotea”*. Getxo Kirolak elkarteak, Kultur Etxeak eta Getxolanek antolatu dute eta, urrira bitartean, herriko ehun saltoki, ostalaritzako komertzio eta profesional baino gehiagok parte hartuko dute.

Xake-Taldeak abiatuko du programa apirilaren 26an, tabernetako terrazetan, xake-txapelketa bategaz. Maiatzeko aste akabuetan, barriz, taichi, yoga, dantza, spinning, aerobic, gurpil-lerroko patina-jea, skate eta orienting probak egingo dira kalean. Gainera, ekainaren 14 eta 15ean Algortako Biotz Alai plaza eta Telletxe kaleak kirol-kantxa bihurtuko dira ordu



Getxo AktibaTU! programaren aurkezpenaren irudi bat

batzuetan: hainbat kirol praktikatu eta horiek sustatzen dituzten kirol-taldeak ezagutu ahalko dira. Eta ez hori bakarrik. Udan ere egongo da kirol-eskaintzarik, uztailean eta irailean. Izan ere, itsasoagaz harremana duten hainbat ekintza garatu-

“Ekainaren 14 eta 15ean kirol-kantxa bihurtuko dituzte Algortako Biotz Alai plaza eta Telletxe kalea”

ko dute, besteak beste: kayak, bela, urpeko igeriketa eta paddle surfa.

Kultur Etxeak, bestalde, sortzaile gazteen artea kalera eta 60 komertziotara hurbilduko du urrian. Horrela, urte birik behin egiten den Getxoarte-k formatu berria izango du, *“ekitaldiaren esentzia mantenduz, eta hainbat denda eta taber-*

natara hurbilduz; azken horiek interes handia erakutsi dute euren lokalak gazteei uzteko, hainbat formatutako obrak erakutsi ditzaten: bideoa, eskultura, margoa eta abar”. Erakusketa horrek azken tendentzia artistikoak ezagutaraziko ditu eta ibilbidea prestatuko dute lanak dauzkaten espazioetatik.

Horregaz guztiagaz batera, saltokiek eta ostalaritza lokalek unean uneko ekintzen inguruko hitzaldi, tailer, aurkezpen eta berbaldiak ere eskainiko dituzte. Gainera, *El secreto de sus txokos* izeneko lehiaketa antolatuko dute, gastronomia elkarte gehienak bilduz.

Jardueretan parte hartu gura duten artistek erakunde-antolatzaileak harremanetan ipini besterik ez dute. o

Info+: www.getxo.net

Ikastolaren urrezko jaia

50. urteurrena ospatuko du San Nikolasek 27an



Urteurrenaren ekitaldiak antolatzen ari den lan-taldea

Ez da nolanahiko urteurrena: Algortako San Nikolas Ikastolak 50 urte bete du eta, ospatzeko, hainbat ekimen garatzen ari da ikasturtean zehar. Hurrengo apirilaren 27an izango da, Euskal Jaia antolatuko dute-eta auzoan.

Goizeko 09:30 aldera hasiko dira kaleak esnarazten ikastolakoak, dianagaz. Pare bat ordu beranduago, barriz, kalejira egingo dute auzoan eta dantza emanaldia izango da Telletxen, Agurra, Itxartu zein Itxas-Argia taldeakaz, eta Areatxu eta Txopolis fanfarreakaz.

Aldi berean, baserriko produktu-erakusketa eta salmenta egingo dute Tellagorri plazan, arrastiko 15:00ak arte. Baina umeek ere parte hartzeko aukera izango dute goizeko ekitaldietan, izan ere, eurentzako herri-kirolak izango dira

Biotz Alai plazan. Goiza behar bezala amaitzeko bertso-bazkaria egingo dute Zabalan, ALBEko lagunakaz.

Baina ez pentsa eguna horretan lotuko denik: arrastian Oxabi taldeak girotuko ditu tabernak eta Norgaragu kalejira-antzerkia egingo du Utopian antzerki-taldeak 19:00etan. Horiek biak amaitutakokan Geltokia plazan kokatuko da ospakizuna, erromeria hasiko da-eta 21:00etan Erdizka Lauetan taldeagaz. Gaueko 23:00etatik aurrera, gainera, sorpresa iragarri dute ikastolako lagunek.

Bazkaritarako txartelak salgai daude ikastolako idazkaritzan, Villamonte eta Sustrai tabernetan eta Amets kamiseta dendan, 15 euroren truke. Ziur ikasle ohi mordoak elkartuko dela, animatu! o

Info+: intranet.sanikolas.com

AUZOKA DINAMIKA ABIATU DU EH-BILDUK

Auzoetara hurbilduko dira EH-Bildu udaltaldeko zinegotziak, *“auzo bakoitzerako programa, proposamenak, arazoak zein kritikak era zabalean eztabaidatzeko auzokideakaz”*. Romon ekin zieten asanbladei apirilaren 10ean eta hilotan hurbilduko dira Getxoko beste auzoetara ere, izan ere, *“herritik eta langileengandik gertu, herritarren eta langileen ezagun, euren arazoan ezagun eta euren zerbitzurako zinegotziak”* izan gura dute.

Info+: www.wegizu.org

GAZTEENTZAKO TAILERRAK EUSKARAZ

Gazteria Zerbitzuak ondoko tailerrak antolatu ditu datozen asteotarako Gaztelekuan, euskaraz. Larrua lantzen ikasteko tailerra maiatzaren 8an hasiko da eta ekainaren 5era arte luzatuko da, eta makillaje tailerra maiatzaren 9an hasi eta ekainaren 6an amaituko da. Lehena eguaztenetan izango da, 17:30etik 19:30era, eta bigarrena eguenetan, ordu berean. Izena emoteko epea ikastaroa hasi aurreko egunean amaituko da.

Info+: www.getxo.net

UDAN ERE UMEEK BADAUKATE ZER EGIN ETA NON AUKERATU

Udalaren aisi-jardueretan parte hartzeko izena emon dezakete 4 eta 17 urte bitartekoek. Hiru tokitan garatu ditu Udalak ekimenak: Gazteria Zerbitzuak hiriko udalekuak antolatu ditu uztailean; Getxo Kirolak-ek, barriz, Udajolasketan, Jolasketan eta Kiroletan programak garatuko ditu uztailean zein abuztuan, eta Futboleando, Mendia eta kirolak, eta Grand Slam uztailean; azkenik, Musika Eskolak arteari buruzko programa antolatu du uztailearen lehen hamabostaldirako. Ordutegien eta prezioen barri daukazu udalaren webgunean. Bestalde, laster hasiko da izen-emotea Bizarra lepoan elkarsteak antolatutako udalekuetarako.

Info+: www.getxo.net

Udaberri promozioa:
Alkandorak eta brusak 19'95€

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Yayo Herrero Lopez > FUHEM fundazioko zuzendaria

“Planeta mugatu batean justiziarako bide bakarra da aberastasuna banatzea”



Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan emon zuen ikastaroa Herrerok

Yayo Herrero Lopezek FUHEM fundazioa zuzentzen du eta *Ecologistas en accion* (Ekologistak martxan) taldeko kide da, besteak beste. Martxo akabuan Getxora hurbildu zen ekofeminismoari buruzko ikastaro interesgarria eskaintzeko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan: *Krisialdi ekonomikorako alternatiba feministak: ekofeminismoaren ikuspegia*. Baina zer esan gura du ekofeminismoa kontzeptuak? Zelan batzen dira gai biak, ekologismoa eta feminismoa? Zer zerikusi daukate? Zalantza horiek denak argitzeko jo dugu hizlariarengana.

—Zer zerikusi daukate ekologismoak eta feminismoak?

—Ekologismoa biosferagaz eta naturaren funtzionamenduagaz bateragarria den eredia eraikitzen saiatzen da. Zentzu horretan diogu ekologismo sozialak proposatzen duela interesgunea izatea bizitza naturala eta ongizatea, eta ez merkatuak eta etekinak. Eta feminismoa ere emantzipazio-mugimendua da eta erdigunean kokatzen du ongizatea eta bizitzaren mantentzea. Ikuspegi horretatik, patriarkatua sostengatzen duten sustrai askok,

adibidez euren ekarpenen inbisibilizazioak, bat egiten du natura-prozesuen eta ekosistemen funtzionamenduaren inbisibilizazioagaz. Gainera, hirigintza, ekonomia edota antolaketa sozialaren arloetako aldaketa-proposamen askok bat egiten du bi mugimenduetan. Biek agerian uzten dute kapitalismoa bateraezina dela ongizateagaz eta planetaren mantenuagaz. Beraz, logika ekonomiko erabat desberdina behar da bizitzaren oinarri materialak mantendu ahal izateko.

—Krisialdia ekonomikoari benetako

alternatiba da ekofeminismoa?

—Nire ustez ekofeminismoa ezin da definitu alternatiba huts eta bakar bezala; ekonomiaren beste ikuspegi batzuk ere beharrezkoak dira. Ekofeminismoak mundua ikusteko eta ekonomia berran-

«Eredu ekonomiko kapitalista bateraezina da ongizateagaz»

tolatzeko alternatiba argiak ikusteko betaurrekoak eskaintzen ditu mundu justua eraikitzeko. Baina alternatiba bideragarria eta benetakoa izanagatik ez da erraza, egungo botere-eredua eta logika ekonomikoa hankaz gora ipintzen duelako. —Ikastaroaren balorazioa oso ona izan da, zer ondorio atera zenuten?

—Ondorioak batez ere proposamenak dira. Lehena, talde-irudikaria deskolonizatze beharra, bizitza egokia eraikitze bide bakarra jotzen duelako ekonomia-hazkundera, hain zuzen kontrakoa denean: hazkunde eredu horrek ekarri du eta krisialdia. Bigarrena, lurraldeari lotutako politikak garatzeko beharra: egun politika denak diruari lotuta daude eta. Hirugarren ondorioa, denborari lotutako politikak garatzeko beharra: lan asko etxean egiten dira, ez dira ordaintzen eta ez dira lantzat hartzen, baina erabat beharrezkoak dira bizitza duinak eraiki ahal izateko; eta lan horiek emakumeek egiten dituzte. Laugarrena, planeta mugatu batean justiziarako bide bakarra dela aberastasunaren banaketa; horrek esan gura du gehiegizko aberastasunaren aurka borrokatzea. Azkenik, ezagutzaren alor gehienetan proposamenak landuta egon arren, egikaritzeko beharrezkoa dela sortzea aldaketa bultzatuko duen oinarrizko eraikuntza politikoa. ○

Aixerrotakoen diskoa

Ikasleek diskoa grabatu dute Oskar Estangagaz, eurek sortutako kantuez



Grabaketaren une bat, Nahikari Ayok utzitako argazkia

Aixerrota Institutuko DBHko laugarren mailako musika-ikasleek diskoa grabatu dute Oskar Estanga nafar kantari eta bertsolariagaz batera, eurek sortutako abestiakaz osatuta.

Zehazki, getxoztar ikasleek bertsolaritzan oinarritutako kantuak aukeratu dituzte eta, horren ostean, metrika atara diete, era horretan abesti barriak sortuz. Aixerrota Institutuko irakasle bik sustatu dute proiektua: Itsaso Gonzalez musika-irakasleak eta Nahikari Ayo bertsolaritza-irakasleak.

Abestion mezuak osatzen dituzte, bai egungo gaiek, bai nerabeen kezka eragi-

ten duten gaiek. Besteak beste, ondokoak dira kantuak: *Guantanamera*, *No woman no cry*, *Askok irudipena du* (Katamalo) edota *Yellow submarine* (The Beatles).

Proiektuaren sustatzaile eta irakasleek azaldu dutenez, egitasmo honegaz hainbat helburu lortu gura izan dituzte, ikasleen onurarako: lehenik, nerabeon kezka eta sentimenduak kantuetan txertatzea; bigarrenik, ikusleen aurrean kantatu ahal izatea konplexu barik; hirugarrenik, bertso-teknika eta kantagintza hobetzea eta, azkenik, abestiak grabatzearen esperientzia bera bizitzea. ○

Info+: www.aixerrotabhi.net

DANTZA-ERAKUSTALDIA APIRILAREN 28AN

Nazioarteko Dantza Eguna Getxon ere ospatuko dute, apirilaren 28an, domekan. Herriko dantza akademia, kolektibo eta profesionalek koreografiak eskainiko dituzte kalean, dantza garaikidea hainbat musika-estilogaz konbinatuz. Talde horietako irakasleek sortu dituzte erakustera doazen koreografiak eta Areetako Geltokia plazan izango da erakustaldia, 11:30ean eta doan.

Info+: www.getxo.net

BIZKAIA ZUBIAN AUTO-GIDA ZERBITZUA ABIAN

Zubiaren historia ezagut daiteke orain, bertatik bertara, auto-gida zerbitzuaren bitartez. Bertako denda bietan aloka daiteke gailua euro biren truke: zubian zehar bisitaldia gidatuko du 45 minutuz eta narrazioa entzun daiteke euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edota frantsesez. Areetan edo Portugaleten has daiteke ibilbidea eta bisitaria eroango du, besteak beste, terrazara, goiko pasagunera, igogailura, ontzira eta zubi aurreko plazara Areetan. Gainera, 7 euro ordainduta aditu batek gidatuko du bisitaldia. Uztaillean 120 urte beteko du zubi ospetsuak eta ospakizun gehiago antolatuko dituzte.

Info+: www.puente-colgante.com

TXERRA RODRIGUEZ IRAKURZALEEN TXOKOAN

Made in Galiza liburuaren itzultzaileagaz solasaldia antolatu dute Uribe kostako irakurzaileen txokoan apirilaren 25ean. Txerra Rodriguez da gonbidatua eta, ohiko legez, Algortako Aldai Patronatuen elkartuko dira irakurzaileak. Galiziako argitaldarek urteko liburu onenaren saria emon zioten 2007an liburu honi, eta gizarte fenomeno bilakatu da han: hainbat pasartegaz bideoak grabatu dituzte eta komikiak ere egin dituzte, baita irakaskuntzan erabiltzeko irakurketa-gidak ere. Rodriguezegaz solas egin gura baduzu arrastiko 20:00etan bertaratzeari besterik ez duzu, danak gaude gonbidatuta!

Info+: www.egizu.org

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Beatriz Churruca Etxeberria > sortailea

“Dantzaren alorrean ohiko ikuskizunaz bestelako gauzak egin daitezkeela erakusten dugu”

Gorputza_espazioa_mugimendua erakusketa ikus daiteke Kultur Leioan maiatzaren 5era arte, Nazioarteko Dantza Egunaren harira. Erakusketa bikoitza da, Iker Gomezen bideoak eta Beatriz Churrucaren argazkiak biltzen ditu-eta. Bigarrenagaz egon gara.

—*Agertu artean* da zure erakusketa: zer erakusten dute argazkiek?
—Dantza jaialdien eskaintza dibertsifikatu asmoz egindako argazki-lana da, artista plastikoa naizen aldetik, baita dantzagaz daukadan harremanetik abiatuta ere. Dantzari buruzko argazkiak dokumentazio lanerako izan ohi dira, baina nik gorputza, bere memoria eta mugimendua erabili gura nuen irudiaren elementu gisa: horixe jasotzen dute Mavi Tabernerok egindako argazkiek. Dantzaguneak (Gipuzkoako Aldundiaren dantzarako zerbitzua) eman zidan erresidentzia artistikoari esker egin genituen.
—**Omenaldi gisa egindako lana ei da?**
—Ekainean Donostiako Artelekura itzuli nintzen hilabetez. Helburu nagusia zen erakusketa baten oinarria osatuko luketen 10 edo 15 irudi inguru lortzea. Zentro oso garrantzitsua izan da artista askorentzako lantoki gisa, eta hori garrantzitsua



Erakusketaren irudi bat, Beatriz Churrucak utzitakoa

da hasten ari direnentzat; gainera, zentroaren bitartekoak txundigarriak dira. Uste dut horrelako zentro bakarrenetakoa dela eta, zentzu horretan, omenaldi txikia izan daiteke. Argazkiek horri buruz hitz egiten dute: ordu asko igaro dudan espazioak aukeratu genituen.
—**Zer topatuko du ikusleak?**
—Argazkiek dantzagaz zerikusia badute ere, alor horretan gorputzagaz bestelako gauzak ere egin daitezkeela erakusten du-

te: dantzagaz zerikusia dauka, baina ez da ohiko ikuskizuna, zuzenekoa, hasiera eta amaieragaz. Gorputzagaz eta mugimenduagaz beste harreman mota bat erakusten dute Iker eta bion lanek.
—**Zer nabarmenduko zenuke?**
—Leioako erakusketaren kasualitatea: lan bi izanik, kultur programatzaileak arriskatu du eta erakusketa barria sortu du, lanak bilatuz, ikertuz eta, azkenean, espazio berean elkartuz. ○

Aurtengo nobedadeak
Umore Azokako lanen herena estreinaldiak izango dira, **maiatzaren 16tik 19ra**



Umore Azokako aurreko edizio bateko irudia

Maiatzaren 16tik 19ra ospatuko da kaleko artisten Umore Azoka eta, antolatzaileek iragarri dutenez, ikuskizunen herena erabateko estreinaldiak izango dira. Danatara 300 proposamen baino gehiago jaso dute eta, horien artean, Europa eta Amerikako 53 konpainiaren 54 ikuskizun aukeratu dituzte, horietatik 13 estreinaldiak.
Horien artean, 12 euskal konpainiaren lanak ikusi ahaliko dira: Al Di Là, Bapatean Zirko, Cachaba Teatro, Deabru Beltzak, Ertza, Gaupasa/Nacho Vilar Producciones, Ipso Facto eta Trapu Zaharra. Gainera, Europako hamaika txotatik ere iritsiko dira lanak.
Ohi legez, antzerkia, zirkoa, dantza,

klown, performance, txotxongilo eta musika tartekatuko dira Azokak iraungo duen lau egunetan.
Lanok aukeratu ostean, barriz, sektoreko profesionalentzat izena emateko epea zabaldu dute: maiatzaren 3ra arte egin daiteke Azokako webgunea (esatea oraintsu barritu dutela, lehengo helbide beragaz: www.umoreazoka.org). Antolatzaileek, gainera, iaz hurreratutako profesionalen kopurua gehitzea espero dute: 175 lagun etorri ziren.
Plaza desberdinetan izango dira antzezpenak, baina ikuskizun ibiltariak ere egongo dira kaleetan. Gainera, Kultur Leioan ere izan ohi dira batzuk. ○
Info+: www.umoreazoka.org

DANTZAREN EGUNA OSPATZEKO LAN BI
Nazioarteko Dantza Eguna dela-eta ikuskizun bi ekarriko dute Kultur Leioara apiril akabuan: Andaluziatik iritsiko da Rocio Molinaren konpainia *Danzaora* taularatzeko hilaren 26an, barikuan (ikuskizunari buruzko informazio gehiago topatuko duzu taldearen webgunean: www.rociomolina.net). Egun bi beranduago, barriz, *Space-ko zarama* eskainiko du Krego Martin euskal dantza taldeak. Lehena ikusteko 10 euro ordaindu beharko da eta bigarreneko 5 euro; emanaldi biak hasiko dira 18:00etan.
Info+: www.leioa.net

XIII. POP-ROCK LEHIAKETAREN FINALA SAN JUAN JAIETAN
Leioako XIII. Pop-Rock Lehiaketa ezagunera lanak aurkezteko epea amaitu da eta, orain, kategoria bakoitzeko talderik onenak aukeratu dituzte epaileek: maiatzaren 8an emongo dute horien barri. Finala San Juan jaietan egingo dute, ekaina akabuan. Halaber, maiatzaren 8an ere sari berezien irabazleen izenak jakinaraziko dituzte epaileek: euskarazko abesti onena eta Leioako talderik onena sarituko dituzte. Danatara 4.800 euro banatuko dute, bestelako sariez gainera.
Info+: www.kulturleioa.com

ZIENTZIARI BURUZKO ‘IRAKALEA’ HILAREN 4AN
Zientzia kalera ‘Irakalea’ egingo du Herrigunek maiatzaren 4an, Bulebarran. Izan ere, leioaztarrakaz partekatu gura dute EHUKo Zientzia Fakultatera egindako bisitaldian ikasitakoa: Txomin Arestiko ikasleak joan ziren unibertsitatera, Kimika, Fisika eta Biologia laborategiak bisitatu eta hainbat esperimendu ikusteko. Maiatzeko ‘Irakalean’ parte hartzeko herrigunegaz harremanetan ipin zaitezke, eta informazio gehiago topatuko duzu euren webgunean: info@herrigune.org eta www.herrigune.org.

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaileak, Solinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GEIXO

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Amets Ladislao > Esnetik kooperatibako kidea

“Alternatibak sortzen ez badira ohiko nekazaritza eredua desagertuko da”

Urtebete dauka Esnetik kooperatibak, elikadura-burujabetza helburu daukan elkarteak. Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena garatzen du eta hitzaldia eskaini barri du Erandion.

—Zer da Esnetik eta zer egiten du? —Kooperatiba mistoa da, esnekien munduko ekoizle, kontsumitzaile eta elkarte laguntzaileen artekoa. Esnekiak egiten ditugu, batez ere ardi esneagaz, baina behi esneagaz ere bai. Artzainak Orozko ingurukoak dira eta bertan dago gaztandegia; behien baserria, barriz, Karrantzan dago. Industriadik kanpora geratzen diren base- rri txikiak dira, eta agroekologiaren bide- an doazenak.

—Zergatik sortu zenuten Esnetik? —Esne-munduan krisi oso sakona dago, industriaren esku uzten da dena: hemen- go industriarik indartsuena Aldanondo da, baina artzainei ordaintzeari utzi zien; sindikatutik planteatu zen horri buelta emateko beharra. Artzainekin negoziatzen dugu prezioa: Ipar Euskal Herriko eredua hartzen dugu, prezio ona da-eta. Gainera, banaketa enpresa handiek oso merke erosten dute esnea eta prezioa igotzen dute gero, baina diru hori ez da ekoizleentzat, banaketa enpresarentzat



Info+: www.esnetik.com eta infoesnetik@gmail.com

baizik. Hori aldatu nahi genuen, eta horregatik egiten dugu salmenta zuzena. —Antzeko esperientziak abiatu dira, bai esnekien munduan, bai nekazal munduan; krisiari aurre egiteko modua da? —Hori da. Uzten baldin badituzu zure gauzak besteen esku, horien gaineko boterea galtzen duzu. Bizkaian aspaldi dago Bizkaigane elkarte, guretzat eredu- garria dena: modu ekologikoan ekoizten dute eta salmenta zuzena egiten dute. Gu esnekietan zentratu gara, mundu hau desa-

gertzeaz zegoelako. Azkenean, horrelako alternatibak sortzen ez badira ohiko nekazaritza eredu hau desagertuko da: artzain eta baserri txikiek ez daukate lekurik gaur egun. Proiektua zabaltzen ari gara eta epe luzera ekonomikoki bideragarria izatea posible da, baina orain hasten ari gara eta astiro doa. —Non topa daitezke zuen produktuak? —Algortan Kontxi Urdaitegian, Sopelan zapaturo plazan eta Romon belar- den- dan; Erandion ere zabaldu nahi dugu. ○

Aurrekontu murritzagoa

Udalak 32,8 milioi euroko aurrekontua onartu du 2013rako, iaz baino %8 gitxiago



Erandioko udaletxea

Erandioko Udalak ere aurrekontuen partida estutuko du aurren, eskualdeko gainontzeko Udalen ildoari jarraituz. EAJk gobernaturako udaleko aurrekontua, zehazki, iaz baino %8 txikiagoa izango da, hau da: 32,8 milioi eurokoa. Aurrekontuak onartu zituzten PP eta PSE alderdien abstentzioari esker; alderdion hainbat zuzenketa onartu zuen EAJk. Bilduk, barriz, Gobernu Taldearen proposamenari ezetz esan eta osoko zuzenketa aurkeztu zuen, baina gainontzeko alderdiek ez zuten onartu. Inbertsioei eragingo die gehien murrizketak: 2012an baino %43,3 gitxiago

bideratuko dute horietara: 3 milioi euro. Halere aurrera jarraituko dute hainbat lanegaz, berbarako: HAPN-ren idazketa, eta Alzaga eta Erandiogoikoa arteko bidea hobetzeko lanak, baita bestelako obra txikiagoak ere. Kontrara, Gizarte Ekintza arloko diru- partida handitu dute: Kontsumoa eta Osasun Publikoa alorrakaz batera, hiru- rentzako 2.933.576 euro gorde dute, iaz baino %15 gehiago. Bestalde, apur bat behera egingo dute Ogasuna, Hezkuntza, Musika Eskola edota Gobernu Organo- etarako partidek, besteren artean. ○ Info+: www.erandio.net

HURBILDU MUSIKA-ESKOLARA HILAREN 4AN

Musika-Eskolak atek zabalduko dizkie herriko umeei maiatzaren 4an, zapatuan, bertatik bertara ezagut dezaten bere eskaintza: ekimenak, ikasketak, baita bertan jotzen ikas daitezkeen musika- tresnak ere. Horrela, 6 eta 9 urte bitarteko umeak datorren ikasturtean eskolan ikastera animatu gura dituzte. Gainera, modu originalean erakutsiko diete eskola umeei: irakasleek kontatutako ipuin baten bitartez entzun eta ezagutu ahalko dituzte musika-tresnak. Astrabuduko lokalean egingo dituzte saioak goizean, hiru txandatan: 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan. Parte hartzeko ondoko telefono zenbakira deitu behar da: 944 170 776.

A TROMPICONES OBRA ASTRABUDUAN

Maiatzaren 4an A tropiccones antzezlan- a ikusi ahalko da Astrabuduko kultur etxean, 20:00etan. Luna llna taldearen lana da eta, emanaldira joan gura izanez gero, sarrera eros daiteke kultur etxean eta udaleko Kultura sailean, 2 euroren truke.

ANDRA MARI ELIZAREN HISTORIA JASO DUTE LIBURU BATEAN

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean argitaratu dute Erandiogoikoako elizari buruzko liburua: Iglesia de Andra Mari de Erandio. Estudio historico y artistico, bertan jasotzen da elizaren historia, bere jatorriari buruzko datuak edota eraikuntza- faseak aurkeztuz. Elizbarrutiko Museoko historialari eta ikertzaile-taldeak urtebetez ikertu du eraikinaren historia eta datuak: Juan Manuel Gonzalez, Raquel Cilla eta Jesus Muñiz dira. Horien arabera, beste eliza bat egon zen egungoa baino lehen, izan ere, XVI. mendeko elizetan ez zen ohikoa hiru nabe izatea. Uste dute egungo eraikinak lehengo elizaren parte batzuk ordezkatu zituela 1.500 urte aldera. Info+: www.erandio.net



Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

LOROÑO PASABIDEA
EGITEKO OBRAK LASTER

Oinezkoen eta txirrindularien igarotzea errazteko asmoz, Loroño pasabidea egiteari ekingo dio Sopelako Udalak. Proiektua zenbait hilabete atzeratu ostean, antza, behingoz, lanak hasi egingo dira. Horrela, aurreikuspenen arabera, 6 hilabeteko epean pasabidea amaituta egongo da. Exbasa Obras y Servicios SL izango da obra egiteaz arduratuko den enpresa. Pasabidearen bitartez, aurretik egondako istripuak saihesteko helburua daukate.

HEMENDIK AURRERA,
UDALBATZAK BIDEOAN
IKUSGAI

Aurrerantzean, Sopelako Udalak herritarren eskura jarriko ditu Udalbatzen bideoak interneten. Ekimen horren bitartez, herritarrek udalbatzan gertatutako guztiak ikusteko aukera izango dute; eztabaidak, bozkak, landutako gaiak e.a. Herritarren bilaketa errazteko asmoz, bideoak puntuka banatuta egongo dira; hau da, gai bakoitzak bideo propioa izango du. Horrela, Udalak gardentasun handiagoa lortu gura du, eta bide batez, herritarren parte hartzea sustatu.

SOPELAKO JAIETAKO
KARTEL LEHIAKETA

Martxan da sanpedro eta karmenetako kartel lehiaketa. Parte hartzaileek Kurtzioko kultur etxean aurkeztu beharko dituzte lanak, eta taldeka zein banaka parte hartu ahal izango dute. Horrez gainera, parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, horrek aurretik saritu bakoa izan beharko du. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 5a arte izango da. Irabazleak 300 euroko saria irabaziko du, eta Sopelako dendetan beste 200 euro xahutzeko bonoa. Hortaz, ideiarik edukiz gero, hortxe aukera bikaina, irudimenetik lan ederra sortzeko.

20 urtez zaharrak barri
“Non zaldarra, han atzamarra” lelopean
ospatuko da **Esaera Zaharren Txapelketa**



Esaera zaharrak jai bihurtzen direneko eguna

Apirilak 27, egun horretan esaera zahar zaleek hitzordu garrantzitsua daukate: urtero legez, aurten ere, AEK-k antolatuta Esaera Zaharren Txapelketa egingo da Sopelan. Txapelketaren XX. edizioa izango da aurtengoa, eta urteak pasa arren, eguneko egitaraua urteroko berdintsua izango da. Horrela, goizeko hamaiketan partaideak batuko dira, nor bere ibilbidera tabernaz taberna, musika giroan lotzeko. Bertan partaideen zeregina hauxe izango da: ALBEko kideen bertso idatziak entzun, eta bakoitzaren azpian gordetzen den esaera zaharra

asmatu beharko dute. Gero, goizean egindako hainbat multzotatik talde bana sailkatuko da, puntu gehien daukana, hain zuzen. Herri-bazkariaren ostean, final-erdiak eta finala jokatuiko dira; eta orduan ere, bertsoak entzungo dituzte, aurten Xabier Amuriza eta Ane Labakaren ahotik. Antolatzaileek 100 esaeren zerrenda osatu dute, AEK-ren web-orrialdean eskuragai dagoena. Horratx aukera, euskaraz, kulturaz, bertsoez zein umore onaz gozatzeko; izan ere, 20 urte ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula! ○

Ane Olabarri > Sopela Ezagutuz mahai-jolasaren sortzailea

“Herritarrek modu ludiko eta dibertigarrian Sopelako leku-izenak ikasi ahalko dituzte”



Mahai-jolasa Mankomunitateko bulegoan salgai egongo da

Joan den apirilaren 20an, Sopelan egindako liburu-azokan Uribe Kostako Mankomunitateak Sopelako Udalagaz batera Sopela Ezagutuz mahai-jolasa aurkeztu zuen. Mahai-jolasaren proiektua Urtxintxa Eskolak hartu du bere gain. Gehiago jakiteko Ane Olabarri Urtxintxako kideagaz eta proiektuaren arduradunagaz berba egin dugu. —**Zein helburugaz sortu da mahai-jolasa? Zer lortu izan gura duzue?**

—Bada, askotan egin izan dira azterketa toponimikoak; ondoren, liburuak edo cd-ak kaleratzen dira azterketaren emaitzak zabaltzeko asmoz. Halere, herritar gehienei ez zaizkie azterketa horien datuak heltzen. Eta azken finean, azterketa toponimikoaren azken urratsa, egindakoa herritarrei zabaltzea da. Kasu honetan, mahai-jolasaren bitartez Sopelako toponimia ezagutarazteko saiakera egin da; hortaz, modu ludikoan Sopelako leku-izenak ikasi ahal izango dira lagunartean, familian,

azken finean, edozeinek jolastuz ezagutu ahal izango du Sopela.

—**Zertan datza mahai-jolasa?**

—Jolasa Okaren oso antzekoa da; taula bat dauka, horretan Sopelako mapa dago, eta laukien ibilbidea jarraitu beharra dago; Sopelako hondartzetan hasten da ibilbidea, eta Muñarrikolandan amaitu. Partaideek laukietatik igarotzean galderak erantzun edo frogak egin beharko

«Edozeinek jolas dezake, bai lagunartean, bai familiagaz»

dituzte. Galdera guztiak Sopelari buruzkoak izango dira, eta frogak Sopelako leku-izenekin ere badute harremanik. Mahai-jolasa formatu txikikoa da; beraz, edozein lekutara eroateko modukoa da. —**Zeintzuk dira jolasean agertzen diren Sopelako leku motak?**

—Auzoak, etxebizitzak, ibaia, errekek, hondartzak, iturriak, kaleak, elizak... ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
 - *Eskolaz kanpoko ekintzak*
 - *Maila guztiak*
- *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
 - *Talde txikiak*
- *Ingalaterran egonaldiak*

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta barrikuntza*

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

STOP KALERATZEA-EN
BULEGO BARRIA
BERANGON

Berangoko Udalak STOP Kaleratzekak elkarteari bulegoa eskaini dio Berangoko Antzokiaren areto batean. Bulegoa lehen solairuan dago, eta publikoari arreta eskaintzeko zabalik egongo da martitzenetan eta eguenetan, goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara. Bertara hurbiltzen direnek arreta psikologiko eta juridikoa eskatzeko aukera izango dute. Bertako udal-gobernuak proposatu zuen STOP Kaleratzekak elkarrekin bulegoa izatea, eta gainerako talde politikoen babesa jaso zuen proposamen hark. Horrela, joan den apirilaren 10ean Anabel Landa alkateak eta Marta Uriartek, elkarte bozeramailea denak, bulegoa lortzeko hitzarmena sinatu zuten. Momentuz, Uribe Kostan dagoen bulego bakarra da Berangokoa.

APIRILAREN 28AN
PAILAZOEN EMANALDIA

Hil amaieran, 28an hain zuzen, Tomax eta Hipo pailazoak Berangora hurbilduko dira; horrela, euren saioagaz berangoztar txikiak goza dezaten saiaturiko dira. Horrela, ikuskizuna domekan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Sarrerak 3 euro balio du, eta emanaldiaren nondik-norakoak hauexek dira: “Tomax mediku bilakatu, eta Hipo sendatzen saiaturiko da...”. Bertara hurbilduz gero, ikusiko dugu, bada, laguna sendatzea lortzen duen Tomaxek.

zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Liburua protagonista
Liburuaren eguna dela-eta, egitarau zabala antolatu du Udalak irakurtzera animatzeko

Apirilaren 22tik 27ra

Egitarau berezia

LIBURUAREN ASTEA 2013

LIBURUTEGIA KALEAN ETA TAILER BEREZIAK (Ordutegia: 16:30etatik 19:30etara)
Apirilaren 22tik 26ra ludoteka eta haur liburutegia kalera irtengo dira Liburuaren Astea ospatzeko eta ekintza berezi pilo bat antolatuko ditugu familiarengan gozatzeko. Ez ezazu gal, anima zaitze! Berangoetako kultur etxearen aurreko plazan aurki gintzazun.

IPUIN KONTALARIA: MOZORROEN FESTA
Apirilak 23, 18:30etan - Haur liburutegian / 3 - 12 urte bitarteko umeentzat
"IPUIN BAT SORTU" TAILERRA
Apirilak 25, 18:00etan - Haur liburutegian / 3 - 12 urte bitarteko umeentzat

"ZURE PERTSONAIA SORTU" TXAPELKETA
Apirilaren 22tik 26ra ludotekan eta haur liburutegian zure ipuin pertsonaia sortu ahal izango duzu edo nahiago baduzu, etxetik ekar dezakezu. Erabil dezakezu nahiago duzun teknika (eskultura, pintura, collagea, birziklatutako materialak ...) garrantzitsuen zure IRUDIMENA da.
Adinaren arabera hiru kategoria ezongo dira: 3-5, 6-9 eta 10-14 urte bitarteko umeentzat.

DOHANIK

Besteak beste, hitzaldiak, antzerkiak eta kontzertuak izango dira

Apirilean liburua bihurtuko da hileko protagonista. Horrela, berangoztarrak irakurtzera bultzatzeko hainbat dira egingo diren ekimenak, besteak beste, apirilaren 25ean umeen liburutegian ipuingintza tailerrak eskainiko dituzte arrastiko 18:00etan. Horrez gain, hilaren 22tik 26ra bitartean, ipuinetako pertsonaiak sortzeko lehiaketa abiatuko dute ludotekan eta haur-liburutegian. 3-14 urte bitarteko haurrek lanak aurkeztu ahalko dituzte apirilaren 26ra arte. Baina, irakurmena sustatzeko egingo diren ekimenak ez dira horretan baka-

rrik lotuko; izan ere, apirilaren 27an, zapatuan, Berangoko frontoian liburu merkatu solidarioa egongo da, eta liburu bakoitza euro batean salduko du ASA elkarteak. Gainera, azokaz gain, 11:00etatik aurrera, tailerrak, puzgarriak eta ludoteka izango dira adin guztietako umeentzat. Ondoren, bertan, haur-berbena izango da arrastiko 18:30ean. Egun horretan, frontoian, bertan, Berangon abiatu den I. Ipuin laburren lehiaketako sari-banaketa ospatuko dute; daborduko, ez dago aitzakiarik, hartu liburua, eta irakurri! o

Barrikako kantu-tailerra > kantatzen hasteko prest

“Garaian garaiko abestiak aztertu, eta landuko ditugu, ostean abesteko”



Ikastaroak barikuetan dira, iluntzeko 20:00etan Barrikako udaletxe azpiko lokalean

Apirilaren 12an abiatu zen Barrikako Kantu-tailerra, eta ekainera arte iraungo du kantuz baino gehiago irakatsiko duen ikastaroak. Uk ikastaroa prestatzen duten irakasleak egon da; Nahikari Ayok, Josu Landetak, eta Itsaso Paia tailerrari buruzko xehetasun gehiago eman dizkigute.

—Zein da tailerraren helburu nagusia?
—Horrelako tailerretan helburu nagusia jendea kantuan jartzea da. Gaur egun, gizarte informatizatuan bizi gara, ohitura daukagu musika eta kantuak entzuteko, baina ez abesteko. Beraz, honen bidez, gizartea kantuan jartzea dugu helburu nagusia.

—Kantuez gain, zer landuko duzue...
Kantuez gain, kantu bakoitzaren giroa, historia, sasoia, aztertze asmoa daukagu. Horrela, planteamendu historiko bat egingo dugu; izan ere, historian kantatzeko egondako modu ezberdinak iku-

siko ditugu garaiz garai. Gure planteamenduari jarraiki, genero guztiak landu nahi ditugu, eta noski, genero horiek sortzeko egon den motibazioa ere bai. Beraz, XIV. mendetik hasita, XIX-XX. mendeko abestietara ailegatuko gara.

«XIV. eta XX. mende bitarteko abestiak landu gura ditugu»

Abestien letrei ere arreta eskainiko diegu, eta polita litzateke letra irakurri barik abesten ikastea, paperik gabe kantuz ibili.

—Ikastaroa aurrera joan ahala, kalean ere abestera animatuko zarete?
—Horrelako ikastaro hauetan asmoa izaten da kaleak girotzea abestutako kantuakaz. Horrez gain, jendea ekartzeko asmoa daukagu, umeak eta gazteak ere animatzea gurekin etortzera musika jotzera edo bertsotan.o

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 • ALGORTA

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

LEMOIZEN, TXAKURRARI
TRATU TXARRAK EMANEZ
GERO, 15.000 EUROKO
ISUNA

Etxeko txakurren inguruko ordenanatza barria kaleratu barri du Lemoizko Udal-gobernuak. Horrek esaten duenaren arabera, txakurra jo, txakurrari sustantzia toxikoak eman, edota txakurra abandonatzen duen edonori isuna jarri ahalko dio Udalak. Ordenantza horren bitartez etxeko animaliak basbestuago egongo ei dira; gainera, ordenantzaren arabera Udalak animaliak zainduta egotea bermatu beharko du.

GORLIZEN,
JASANGARRITASUN
DIAGNOSTIKOA ETA
DROGAMENPEKOTASUN
TAILERRA

Apirilaren 25ean, arrastiko 19:00etan Gorlizko Sertutxenean, jasangarritasun diagnostikoa egingo da; horretan herritarrek parte hartzeko aukera izango dute. Horrela, besteak beste, ekonomia, lana, euskara, kultura, kirola zein hezkuntza eta osasuna arloak baloratu ahalko dituzte bertaratzen direnek. Horrez gain, egun berean, 17:30ean Gorlizko ikastetxean drogamenpekotasun prebentzioa familian tailerra eskainiko du bertako Gurasoen Elkartek. Horrela, ikus dezakegunez, egun horretan badira formakuntza jasotzeko aukerak.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Gorliz

2012ko aurrekontuak luzatzea;
aurtengo aurrekontuak babes barik



Gorlizko udaletxea. Hainbat dira aurten partida barik lotuko diren proiektuak

Joan den hileko udalbatzan erabaki zuten Gorlizko iazko aurrekontuen luzatzeagaz jarraitzea. Izan ere, bertako Talde Independenteak eta Bilduk ezetz esan zioten Udal-gobernuak aurkeztu zuen aurrekontu proposamenari. Gorlizko Udal-gobernuak aurkeztutako aurrekontua 6 milioi eurokoa izan zen, iaz aurkeztutakoa baino milioi bat gutxiagokoa, alegia. Gorlizko Bilduren esanetan, taldeak Udalari proposamen asko egin zizkion arren, interesik ez, eta muzin egin zien aurkeztutako proposamen guztiei. Talde abertzaleak aurkeztutako proposamenen artean, besteak beste, San Jose auzoko obrak aurtengo aurrekontuetan sartzea, edota langabetu, gazte eta jubilatuentzako udal-baratzak sortzea, izan ziren. Gainera, Gorlizko Bilduk, enplegua sustatzea areagotzeko, eta Gorliz eta Plentziako Gaztetxeari dirulaguntza emoteko eskatu zuten. Beste alde batetik, Talde Indepen-

denteak adierazi zuenez, udal-gobernuak aurkeztutako aurrekontuak ez ziren, ez sozialak, ezta errealak ere; horregatik, ezezko bozka eman zion aurrekontu proposamenari. Horrela, Gorlizko Udalaren arabera, aurrekontuen ukatzeak bertan behera utziko ditu Udal-gober-

Guztira, 2013rako
aurrekontuak 6 milioi
eurokoak ziren; iaz baino
milioi bat gutxiagokoak

nuek aurreikusitako hainbat diru-partida, besteak beste: kaleratzeentzako, lan eta formaziorako, haur-eskolarentzako bideratzea aurreikusten zituzten partidak. Horrez gainera, EAJren gobernutaldeak azaldu duenez, Kultur Etxeari emango zitzaion partida ez da onartu; hortaz, urte honetarako, Kultur Etxea diru-laguntza barik lotu ei da. Hala, 2012ko aurrekontuek indarrean jarraituko dute. ○

Api. 22 - Mai. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Olaia San Miguelen margoak.** Apirilaren 26ra arte. Goñi Portalen.

► **Koldo Egiaren margoak.** Apirilaren 29tik maiatzaren 10era. Goñi Portalen.

GETXO

► **Bizkaiko Artisten Elkartearen margoak.** Apirilaren 28ra arte. Algortako Torrene aretoan.

► **Janire Castresanaren margoak.** Maiatzaren 4ra arte. Algortako kultur etxean.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Danzaora ikuskizuna.** Apirilak 26, 18:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

► **Space-ko zarama.** Apirilak 28, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

BERANGO

► **Papo eta Pupa pailazoak.** Apirilak 28, 18:00etan. 3 euro.

GETXO

► **La tempestad.** Apirilak 28, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 4 euro.

ERANDIO

► **A tropicicones.** Maiatzak 4, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

MUSIKA

GETXO

► **Gintonic.** Apirilak 25, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben.



Info+: deadbronco.blogspot.com

► Musika

Dead Bronco taldearen kontzertua Sopelan

Eskualdeko talde bat gonbidatu du Sopelako Kurtzio kultur etxeak hil honetan: Dead Bronco. Apirilaren 26an eskainiko du kontzertua, barikuan, gaueko 21:00etan. Paco Sanchez (ahotsa eta gitarra akustikoa), Oscar Calleja (kontrabaxua), Alain Llopert (banjoa), Jokin Corral (kaxa flamenkoa) eta Jokin Totorikak (lap steel) osatzen dute taldea, eta batera zein bestera laguntzen die Ainhoa Sanzek. Duela hilabete batzuk irabazi zuten CINEMAD bideoklip-lehiaketa Mancuso ekoiztetxeak egindako lanagaz, eta laster kaleratuko dute lehen diskoa. Hainbat estilo jorratzen dituzte bakoitzak bere ekarpena eginez. Kontzertura sartzea 5 euro ordaindu behar da.

• **Non:** Kurtzio kultur etxean • **Noiz:** Apirilaren 26an, 21:00etan

► **Nnenna Freelon.** Apirilak 27, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 12 euro.
► **Planetaleta.** Maiatzak 2, 20:00etan. Algortako Satistegi tabernan. Doan.
► **Hamaiketan + El columpio asesino.** Maiatzak 4, 21:00etan. Ereagako aparkalekuan. Doan.

ERANDIO

► **Erandioko Musika Banda.** Apirilak 26, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

► **Los Palmeras orkestra.** Apirilak 28, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean.

ZINEMA

SOPELA

► **Las chicas del sexto piso.** Apirilak 25, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

GETXO

► **Zine-kluba: Amor es todo lo que necesitas.** Apirilak 26, 21:00etan.

Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

► **Rio.** Maiatzak 3, 17:00etan. Andres Isasi musika eskolan. 2,10 euro.

► **Hijos de las nubes.** Maiatzak 3, 21:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

ERANDIO

► **Oz, un mundo de fantasia.**

Apirilak 27, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Amor.** Apirilak 27, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

BESTEAK

ERANDIO

► **Altzagako haurreskolan ate irekien eguna.** Apirilak 23, 17:00etatik 19:00etara.

► **Nazioarteko Dantza Eguna.**

Apirilak 27, 12:00etan. Altzagako metroko zabalgunean.

GETXO

► **Literatur solasaldia: Erri de Lucaren *Los peces no cierran los ojos* liburua.** Apirilak 25, 19:45ean. Algortako kultur etxean.

► **Irakurzaleen txokoa; gonbidatua: Txerra Rodríguez.** Apirilak 25, 20:00etan. Algortako Aldai Patronatuan.

► **Nazioarteko Dantza Eguna.** Apirilak 28, 11:30ean. Areetako Geltokia plazan.

BARRIKA

► **Umeentzako gynkhana.** Apirilak 27, 11:00etan. Abaroa parkean.

SOPELA

► **Esaera zaharren txapelketa.** Apirilak 27, egun osoan zehar. Bazkaria 15:00etan, frontoian.



Hegazkin euritea

Sopelan, 1937 aldera

1937ko martxoaren 31tik apirilaren 4ra bonbardatu zuten Durango Francoren aginduz, eta apirilaren 26an Gernika. Uribe Kosta ere jo zuten Espainiako Gerrako bonbardaketek eta hainbat hildako eragin. Eta horietaz gainera, bestelako arrastoak ere utzi zituen gerrak gurean, irudi honetan ikus daitekeenez: Sopela da, Artadi inguruetan dagoen Zalduondo baserria ikusten da atzean, Francoren armada faxistak hegazkin errepublikar bat bota zueneko. Jakin ez dakigu zein den gertaeraren data zehatza, baina aipatutako bonbardaketen garaikoa izan daitekeela uste dugu.

SOPELAKO UDALAK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

Mertxe Aizpurua (Usurbil, 1960) euskal kazetari eta politikaria da. Kazetaritzan lizentziaduna, 21 urteaz hasi zen lanbide horretan, Egin eta Gara egunkarietako kazetari izan zen, eta azken horretako zuzendari. 2011tik Usurbilgo alkate da, Bildu koaliziotik. Pasa den hilean Euskal Herriko Udalen eta hautetsien Biltzarreko, Udalbiltzako presidente izendatu zuten. Ardura hori orain dela gitxi hartu badu ere, Udalbiltzaren egitekoez eta ardurez berbetan egon gara beragaz, eta erronkez eta lehentasunez gainera, besteak beste, udagoienerako Euskal Herriko udalen egoera sozioekonomikoaren gaineko diagnostikoaren ondorioak plazaratuko dituztela eta zelanbaiteko gizarte-kontseilua sortzeko asmoa dutela azaldu digu.

Mertxe Aizpurua

Batera jardutearen garrantziaz...

Testua: **I. Sagarminaga**

—Kazetaritzatik politikara: Usurbilgo alkate (Bildu) 2011tik, eta Udalbiltzako presidente ere orain. Zelako aldaketa suposatu dizu? Egokitze-prozesua zelakoa izan da?

—Egia da egokitze-prozesua behar dela. Pentsatzen duzu hasieran nola izango den eta hala, baina ez duzu harrapatzen inolaz ere osotasunean nolako aldaketa den! Egia da, Usurbil herri txikia dela, edo ertaina esan daiteke, Gipuzkoan herri txiki asko daude horrelakoak eta txikiagoak, baina egia da beste modu batera bizi duzula bai herria, bai herriko dinamikak, eta eguneroko bizitza ere desberdina dela, beste ikuspuntu batetik ikusten dela, bai. Eta egokitze-prozesua behar izaten da! Gero, Udalbiltzak oso erreferentzialtasun ona eskaintzen du, hautetsi guztiontzat. Orduan, nik uste, herri honetan bada horrelako behar bat, zerbaiten elkartasun puntu

batean edo elkartuko gaituen puntu horren inguruan kokatzeko beharra; eta honek ilusioa pizten du, nik hori sentitzen dut: ilusio hori barneratuta dugula hautetsiok Udalbiltzaren inguru horretan, eta pozgarria da. Eta lana da, noski! Baina, hor ere lan-talde handia osatu da, eta pertsona asko gaude lanean; eta

“[Udalbiltza/Eudel] Jatorriz dira ezberdin, hala batak ez du bestea ordezkutzen (...); denentzat ateak irekirik ditugu...”

errazago eramaten dira gauza horiek elkartasun horretan.

—Zatiketa, ilegalizazioa eta absoluzioaren ostean, aro barria abiatu du Udalbiltzak. Zeintzuk dira lehentasunak?

—Aro berria... Berritxoa-edo; uste dudalako badugula indarra, eta indar hori azken urteotako esperientzia horretatik

edan duguna dela, eta bizipen horiek guztiak aprobetxatzen jakingo dugulako... Horregatik ez da berria, horregatik esaten dugu berritxoa dela Udalbiltza. Orduan, prozesu partehartzaile baten bidez zehaztu dira lehentasunak, hau da, hautetsiek parte hartu dute bere garaian egin zen inkesta zabal batean,

eta hortik ondorioztatu diren lehentasunak hurrengo bost hauek dira: lehen-dabizikoa, lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatzea, hau da, Euskal Herrian dauden desorekak gainditzeko pixka bat laguntzea; bigarrena, nazio-egituratzean laguntzea; hirugarrena, herrien eta udalen arteko saretze-



lanarekin hastea, plan baten bidez, koordinazio maila batean edo saretzean laguntzea; laugarrena, naziotasuna, inposatutako nazio-ukazio politikoa gainditzeko ariketa praktikoak martxan jartzea; eta bosgarrena, nazioartekoari begira egin behar dugun lana: munduari erakustea Euskal Herria bizi dela eta badela. Hala, horiek dira bost ardatz edo printzipio nagusiak.

—Horiek eurek ere erronkak badira , horiek martxan ipintzeko eginbeharrekoak, erronkak era berean, eta oztopoak zeintzuk dira?

—Batez ere, Euskal Herria dagoen bezala, hiru administraziopean banatuta dagoenez, horrek jada “handicap” izugarria suposatzen du baita herri bezala bizitzeko ere. Hori da aurre egin behar diogun lehendabiziko gauza. Horren ondorioz hainbat desoreka ikusten dira; Euskal Herria erabat desberdina da alde batetik bestera, baina, gainera desberdindu egin nahi dute, eta politika guztiak hori lortzera bideratu dituzte orain arte. Horrek min handia egin du, eta nabari da horren eragina. Orduan horri nola aurre egiten zaion da gure erronka nagusia. Printzipioz, eta egiten ari garen lana, orain, dignostiko bat egitea da, hau da: ikustea Euskal Herria nola dagoen momentu honetan, zein desoreka dauden, eta desoreka handienak identifikatzeta, eta non eraman ditzakegun halako politikak eta plagintza batzuk desoreka horiek gainditzeko, bai mugaz gaindi dauden desoreka horiek gainditzeko... Eta lan horretan murgildu gara, zeren lehendabizi egin behar dena da ezagutu, diagnostikatu zer den; eta hortik aurrera plangintza egin. Guri jarri zaigun lehendabiziko lehentasuna kohesio sozioekonomikoa lantzea izan da, eta lehendabiziko pausoak horretara zuzendu ditugu, momentu honetan horretan ari gara.

—Udagoienean edo aurkeztuko ei duzue diagnostikoan oinarritutako plangintza, ezta?

—Prozesua hala izango da, bai. Diagnostikoa egingo da, egiten ari gara dagoeneko, Gaindegiaekin. Gero, zenbait deskriptoretan oinarrituz ikusiko dugu, beti ere datuetan oinarrituz, zein diren desoreka handienak, edo desoreka gehien dutenak, edo zeinek eskaintzen diuen aukerak horretan zuzenean interbenitzeko. Horiek guztiak identifikatu

“Oso inportantea da jakitun egotea Euskal Herria guztiz desitxuratutako herria dela; horri buelta eman behar zaio”

ondoren, gizarte eragileekin eta bertako eragileekin ere halako lanketa egitea planteatzen dugu. Azken finean, Udalbiltzak berak bakarrik ez duelako ezer egingo, horretaz kontziente gara: gai honetan pauso eraginkorrak eman nahi baditugu, gizarte eragileen beharra eta denon beharra dago. Beraz, gizarte-kontseilu bat edo asmoa daukagu, eta horretan ere ari gara momentu honetan, hila bete hauetan gizarte-kontseilu hori eratzeko lanean arituko gara. Gizarte-kontseilu horretan ere hartuko dira erabakiak, hau da, plangintza non aplikatu hor erabakiko da, ez da Udalbiltzak bakarrik erabakiko duen zerbait.

—Eudel, Udalbide, Udalbiltza... antzekotasun batzuk badira, desberdintasunak ere nabariak. Halere, jendeak oraindino

“Independentzia, burujabetza, nazio-aitortzaren alde egin nahi bada, nazio bezala funtzionatzea garrantzitsua da”

ez ditu lar ondo bereizten; azalduko dizkiguzu? Eta hartu-emonik aurreikusten duzue?

—Bai, desberdintasunak daudela nabaria da! Jatorriz edo eratzeko modutik bertatik ikusten da: Eudel Euskadiko edo EAEko udalak biltzen diuen erakundea da; Udalbiltzak, aldiz, Euskal

Herri osoa aintzat hartzen du; hor datza hasiera desberdintasun nabaria, lurraldetasuna hartzen dugu guk aintzat, eta Eudelek ez. Nolabait batak ez du bestea ordezkatzten, horregatik esaten dugu Udalbiltzak ez duela bestea ordezkatzten, ez delako gauza bera, gauza bera izan beharko genuke ordezkatzeko eta ez gara. Nafarroan Comunidad de Muni-

cipios Navarros-edo dago, Nafarroarako bakarrik. Gero, Eudelek hainbat alor eta gaitan aholkularitza juridikoa edo teknikoa eskaintzen die udalei; oso teknikoa da. Guk ez dugu horrelako helbururik; gure helburuak lehentasunetan markatuta daude eta printzio nagusietan dago Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea eta horren alde lan egitea da, eta horretan biribiltzen da pixka bat. Eta udal guztietatik eta udalerrri guztietan izan dezakegun indarra horretan jarritz, horretan aurrerapausoak ematea da gure helburua. Orduan, batak ez du bestearekin zer ikusirik. Eta horregatik ez dute inoiz topo egingo. Bestalde, hartu-emanai dagokienez, ikusiko dugu, hemendik aurrera garatuko den zerbait da. Guk denekin hitz egiteko asmoa dugu, eta denen-

—Momentu honetan, egia esateko, gu aipatutako diagnostikoan eta gizarte-kontseilua eratzeko kontuetan erabat sartuta gaude. Udazkenerako zerbait martxan jarri nahi dugu, edo behintzat ondorioak aurkeztu. Hori izan zen Biltzarrean eman zitzaigun enkargua: lurralde-garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatzea; bada oso txintxoak eta

“Batzuetan uste dugu Euskal Herria gauza handiekin bakarrik egiten dela, txikietaz ere asko egin dezakegu”

formalak garenez, hartutako mandatua betetzen ari gara. Eta bide batez, noski, bidean beste eragileekin harremanak sustatzen ere joango gara.

—Orain bizi dugun krisi-garaian, askoren iritiz eginbeharrak aurrera ateratzeko erakundeen bikoiztasuna dago kontu honetan; zer esango zenieke halako ustea dutenei? Eta zelan finantziatuko da Udalbiltza?

—Nazio-erakitzeak finantziazioa behar du. Gaur egun gauza asko ordaintzen dugu nazio-erakuntzaren kontra dihoazenak; hori egitera eta hori ordaintzera behartuta gaudelako, ezinbestean egin

behar dugulako. Bada, nazio-eraikuntzan aurrerapausoak eman behar baditugu, nolabait hori finantzatu egin behar dugu. Dena dela, eskatzen dena ez da diru-kopuru handia; herri bakoitzari duen biztanle kopuruaren arabera urteko ekarpena eskatuko zaio, beste elkarteek egiten duten antzera. Hortikan dirutxo bat atera daiteke, baina ez asko; Udalbil-

tzak ez du diru-kopuru handirik izango. Badu lehendik jaso zena, proiektu batzuk egiteko bazegoen diru-funtsa bat, oraindikan badagoena eta erabiliko duguna. Nik esan dezakedana da ziurtasun osoa dagoela Udalbiltzatik diru hori zein norabidetan erabiliko den, hau da, diru hori eraikuntza nazionalerako nazioa egiteko erabiliko dela. Alde horretatik, gauza batzuk edo diru batzuk merkeak dira, aterako zaion etekinari begiraturaz gero. Oso garrantzitsua da jakitun egotea edo kontziente izatea Euskal Herria guztiz desitxuratutako herria dela momentu honetan; eta horri nola edo hala

buelta eman behar diogu. Batzuetan diruan bakarrik pentsatzen dugu, baina dirurik gabe ere gauza asko egin daitezke; herrien artean gauza asko egin ditzazkegu dirua tartean izan gabe. Dirua ere behar da, noski, baina dirua ere ez da guztia. Nik uste ideia hori garrantzitsua dela. Independentziaren alde edo burujabetzaren edo nazio-aitortzaren alde egin nahi bada, nazio bezala funtzionatzea garrantzitsua da; horrekin aurrerapasoak ematen direla, batzuetan konturatzten ez bagara ere.

—Aipatutako bost lehentasunen arteko bat da Nazioartekotasuna; zentzu horretan eta horregaz lotuta, diasporagaz lan egiteko asmoa duzue? Zelan egingo duzue?

—Bai, dudarik gabe. Euskal Herritik kanpo bizi direnei zazpigarrena esaten zioten noizbait... Eta bai, beste Euskal herri bat dago, jende asko dago, pertsona asko, eta haiekin harremana mantentzea oso-oso garrantzitsua da Euskal Herriarentzat, hemengo Euskal Herriarentzat. Orduan, diasporarako ere lan-taldea osatu nahi dugu; Udalbiltzatik ere diasporarekin elkarrekin aritzeko eta hartu-emanak izateko bideak aterako eta jorratuko dira. ○

Udalbiltzak Uribe Kostari zer?

—Udalbiltzak zer eskaini ahal dio Uribe Kosta lako eskualdeari?

—Agian... Kohesioa esaten dugunean, kohesioak zer esan nahi du: pixka bat bereizten edo banatzen gaituzten hainbat elementu ezabatzen joatea, kohesioa horrela lortzen da. Kohesioa lortu daiteke maila juridikoan, maila ekonomikoan, maila sozialean, eta maila pertsonalean ere. Uribe Kostak, adibidez, hartu-emanak izan ditzake, orain ez dauzkanak, Ligi (Zuberoa) bezalako herri batekin, edo Euskal Herriko beste inguru edo eskualde batekin. Horrelako hartu-emanak ere Euskal Herria egin

egiten dute. Batzuetan iruditzen zaigu Euskal Herria egitea gauza handiekin bakarrik egiten dela, eta gauza txikietaz ere asko egin dezakegu. Esaterako, Zuberoan gazta saltzen edo ekoizten duen, edo barazki-ekoizpenean diharduen, norbaitekin Nafarroako beste inguru batek ere lanketa egin dezake. Horrelako harremanak garrantzizkoak dira, eta egin daitezke; nahiz eta gauza handiak ez direla pentsatu, horrelakoak egin daitezke eta edozeinek egin ditzazke. Udalbiltzak hori ahalbidetzen, saretze horretan lagunduko du. Harremanak inportanteak dira. Eta Udalbil-

tzak potentzialtasun handia dauka, udal asko sartu direlako, alkate asko daude. Horrek zer ematen digu? Gaitasuna; indar horiek guztiak batera jartzen direnean... Adibidez, guztion artean elkar trukatzeko aukera, esperientziak e.a. Hau da, toki batean funtzionatu duen zerbaitek beste toki batean ere funtziona dezake; edo hemen landu eta garatu den ordenantza bat, agian, beste herri bati ere ondo etor dakioko... Lanketa hori eginda dago, eta guztiok aprobetxa ditzakegu sinergiak. Orduan, kanpo-abanikoa oso-oso handia eta zabala da.



GARAZI BASTERREDEAK UTZIRAKO ARGAZKIA

ika, ika, ika...

Korrika18-k betetako 2.587 kilometroetatik 54 egin zituen Uribe Kostan. Halaber, hainbat uribekostarrek Euskal Herriko mugetatik gaindi, Kantauri itsasoaz harago, eroan zuten Korrikaren aldarria, horren lekuko Liverpoolen ateratako goiko irudia.

Eta itsadarraren erdi-erdian, Barakaldo eta Erandio bitartean, bete zuen Korrikak 2000. kilometroa. Eta bidean zenbat arnasestu, izerdi-tanta, irribarre, emozio... Osteko gihar-min eta gogobetetze... Ordutik aurrera, zer? “Eman euskara elkari” egunerokoa bihurtu behar dugu! Hori da benetako erronka! Herri hau euskaraz sentituko eta pentsatuko dugu! Ekin!

Argazkiak: **Ane Basagoiti;**
AEK, Iñigo Fernandez de Martikorena









Olatuen energia Lemoizen > Bimep proiektuaren garapena gurean

Itsasoaren ezkutuko altxorra; itsasoko olatuen energia bizia

Orain aste eskas Bimep proiektua ezarri eta garatu ahal izateko linea elektrikoa jartzeko, administrazioak baimena emon barri du. Hala, pausoz pauso proiektuak aurrera darrai, Lemoizko uretan olatuen indarrak energia lortzeko azpiegituraren ezarpena, antza, aurrera doa.



Armintzako uretan ezarriko da

Gizakiaren historiaren hasieran, modu batean zein bestean gizakia gai izan da naturak eskainitako elementuakaz energia sortzeko; haizea, ura, sua, gasa, petroleoa; sarri, lurrak emandakoak ustiatu, eta bere bizimodua errazteko-edo, elementu horiek guztiak erabili izan dira. EEEk (Energiaren Euskal Erakundea) Bimep proiektua Lemoizko uretan gartzeko bideari ekin dio, helburu nagusia-gaz: itsasoko olatuek eta kostaldeko haizeak sortutako indarra energia bihurtzea.

Gurean ezarriko den azpiegitura ikerketara bideratutako proiektua da, erakusketarako eta saiakerak egitera bideratuta egongo da. Uretan egongo den azpiegituraz gain, Armintzako portu aldean,

ikerketa eta bilketa zentroa egongo da, haraino uretan sortutako datuak eramango dituzte, ondoren aztertze.

Une honetan aurrefa-sean dago proiektua; udazkenerako, barriz, amaitzea espero da

EEEk adierazitakoaren arabera, udazken honetarako martxan egotea espero dute, ostean sare elektrikora konektatzeko; une honetan, baina, aurre-fasean dago obra, zehazki lurren mugimenduagaz hasi da. Ondoren, instalazioa ezartzen hasiko dira; ur azpiko kablea zein azpi-subestazio elektriko barria eraikitzea izango dituzte mugarri nagusienak.

Helburuak helburu

Bimep proiektuak hazten ari den itsas



EEEk emandako Bimep proiektuaren irudi eskematikoa

gailuen industria sustatu gura du; azken finean, Bimep proiektuak gailuaren probak egitea ahalbidetuko du, ondoren, merkaturatzeko. Horrela, EEEren esanetan, azpiegitura honek itsas-energiaren ikerketan erreferentzia bilakatzeko asmoa dauka; beraz, gailu horiek frogatzeko inguru egokia sortuko du, honako sektore teknologiko barria bultzatu, eta sektorean paper inportantea jokatzeko. Hortik sortutako energia sare orokorreko energiaren osagarria izatea gura dute.

Hainbat onura

EEEk adierazitakoaren arabera, energia iturri berriztagarriak bezala, itsas-energiak energia kutsakorrak murrizteko balio du. Horrela, beraien aburuz, datozen urteetan energia berriztagarrien hornitzea haziko da, besteak beste, itsas-energiaren ekarpen nabarmenari esker. Gainera, Energiaren Euskal Erakundeak adierazi legez, proiektuaren ondorioz, “ingurumenean ez da inolako gaitzik aurreikusten; izan ere, azpiegiturak ez

du inolako erregairik erabiltzen. Hortaz, Bimep proiektuaren gaitza portuan amarratuta dagoen botearen gaitzagaz aldera dezakegu: hutsaren hurrengoa. Horrez gainera, honakoak badu besteak ez daukan abantaila: energia modu garbian sortzea, alegia”. Bada, Bimep itsas-energia berriztagarriaren proiektuak ingurumen txosten guztien onespena jaso du. Antza, itsas-energiaren hastapenak dira, horregatik, ikerketa ezinbestekoa da. o

Gorka Bueno > Euskal Herriko Unibertsitateko Doktorea

“Askoz ere probetxugarriagoa da zuzenean eguzkiaren erradiazioa eraldatzea sistema fotovoltaikoen bidez”

—Zeintzuk dira Bimep proiektuaren ondorioak?

—Bimep proiektuaren lehenengo helburua teknologia garatzeko ikerketa-azpiegitura ezartzea da. Horrela, azpiegitura guztiek bezala, ikerketakoek barne, Bimep-ek ingurumen inpaktuak sortuko ditu. Sustatzaileek horiek neurtu, eta onargarriak eta kontrolpean mantenduko direla bermatu beharko dute. Bimep aukera bat izan daiteke euskal teknologia

eta berriztagarrien industria-sektorea garatzeko. Teknologia, ezagutza teknikoa, inbertsioak, lanpostuak bereganatzeko aukera izan daiteke.

—Energia lortzeko beste proiektu jasangarriakaz alderatuz gero...

—Itsas-energia uraren mugimenduan datza. Mugimendu hori haizeek eta uraren tenperatura aldeek sortzen dute. Itsas-energia, azken batean, eguzkitik haizera eta haizetik itsasora eraldatutako

energia da. Beraz, askoz ere probetxugarriagoa da eguzkiaren erradiazioa zuzenean eraldatzea, adibidez, sistema fotovoltaikoen bidez. Halere, kasu batzuetan erabilgarria izan daiteke itsas-energia, eta merezi du horretan ikertzea. Euskal Herrirako bereziki larria da aztertzea haize energiaren potentzialtasuna eta bideragarritasuna itsas-eremuetan. Euskal Herriko lurreko potentzial eolikoa oso mugatua da, eta Bimep-ek

ahalbidetu dezake ur gaineko aerosorgailuen bideragarritasuna aztertzea, kasu honetan Kantauri itsasoan.


—Gure itsasoak sortutako energia egokia izan daiteke horrelako proiekturako?

—Energia berriztagarrien ustiapena Euskal Herrian penagarria da. Benetan deigarria da, zein gutxi erabiltzen den eguzki energia, Alemanian baino askoz gutxiago eguzki gehiagorekin. Ez dauka zentzurik itsasoan energia bilatzeak, lurreko eguzki energia ondo aprobetxatu baino lehen. Lurrean eraginkorragoa da, eta kostuak txikiagoak. Era berean, euskal itsas eremuetan lehentasuna behar lukete ur gaineko airesorgailuek, olatuen sistemen gainetik. Halere, Bimepen helburua ez da

elektrizitatea sortzea, baizik eta ikerketa eta garapen teknologikoa bultzatzea, hemen eta kanpoan erabiltzeko.

—Uste duzu etorkizunik izango duela horrelako azpiegiturak?

—Tentuz jokatu behar dugu. Ikerketa egitea eta teknologia garatzea funtsezkoa da, baina itsasoan potentzia handiko sistemak ezartzea beste kontu bat da. Bereziki, larria da itsas-energia eolikoaren kasua. Aerosorgailu erraldoi asko Kantauri itsasoaren ur gainean flotatzen uztea ez da txantxetarako kontua. Munduan oraindik ez dago halakorik eskala handian. Horren bideragarritasuna ikusteko (nik zalantzak dauzkatzat) Bimep erabilgarri izan daiteke, betiere, eskala txikian. o





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBIn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Plentzia baltzez janzen...

Mikrofilm lehiaketara lanak bidaltzeko epea **maiatzaren 6an** amaituko da



Info+: www.mikrofilmfestival.com

Plentziako Nazioarteko Metraje Laburreko Film-Lehiaketa, Mikrofilm Short Festival-a bigarren ezarritako antolatuko dute aurten. Alde batetik, *noir* zinema edo genero baltza oinarri duen film laburren lehiaketa da, eta bestetik, halaber lehiaketako lanak emanaldi-jaialdia prestatzen dute.

Jaialdiari dagokionez, data eta lekua zehaztu dituzte daborduko: uztailaren 5ean eta 6an izango da, uribilduko alde zaharreko eliza alboko plazan.

Ostera, emanaldi hori antolatzeko lehiaketa gauzatu behar dute lehenago, eta horretan dabilta antolatzaileak. Hala, lehiaketari beren-berengi dagoz-

kion jakin beharrekoen artean daude, besteak beste, hauek: lanak aurkezteko epea maiatzaren 6an amaitzen da; edo-nongo norbanakoak zein taldek aurkeztu ahalko ditu; webgunean irakur daitezkeen oinarrietan azaltzen dute *film noir* edo genero baltzaren ADN-a eta lehenetsiko dituzten ezaugarriak; filmak gehienez 18 minutu iraungo du eta fik-

«Mikrofilm II jaialdia uztailaren 5ean eta 6an; aurretik Mikroekintzak antolatuko dituzte»

ziozkoak zein animaziozkoak izan daitezke; DVD, PAL edo NTSC formatuetan kopia bi helarazi behar dira; euskara edo gaztelera jatorrizko hizkuntza ez duten obrek aipatutako hizkuntza bietako batean bikoiztuta/azpititulatuta egon behar dute; film onenak 1.500 euroko saria jasoko du, eta publikoaren saria lortzen duenak 500 euro.

Halaber, ekimena ezagutarazteko zenbait ekitaldi edo Mikroekintza prestatu dituzte, barbarako: martxoan Bilboko Kafe Antzokian antolatutako musika-emanaldia, edota apirilaren 30ean Bilboko Ambigu jatetxean Ivan Abril sukaldariak prestatuko duen afaria (25 euro /edari barik) eta film-emanaldia (aurretiaz izena emon behar duzu). ○

MAZ Basauri, maiatzean

We Are Standard, MobyDick, Najwa eta Gariren kontzertuak, besteak beste



Lehenengo egunean joko dute algortarrek Mendetz talde kataluniarraren ostean

Basauriko MAZ jaialdia antolatu dute bigarren ezarritako. Maiatzeko barikuetan (azkenengoan izan ezik) 21:00etan izango dira kontzertu nagusiak Social Antzokian (kontzertu bakoitzerako sarrera aurretiaz 10€ + banaketa gastuak; lau kontzertuetarako abonua, 30€ + banaketa gastuak). Lehenengo egunean (maiatzak 3) We are Standard talde getxoztarrak eta Mendetz kataluniarrak eskainiko dute zuzenekoak; bigarren barikurako (hilak 10) MobyDick getxoztarraren eta Christina Roseninge madrildarraren emanaldiak iragarri dituzte; hirugarren hitzordua (hilak 17) CatPeople

talde galiziarren eta Najwa bakarlariaren emanaldiek osatzen dute eta azken ekitaldian (maiatzak 24) Ivan Ferreiroren eta Gariren zuzenekoak gozatu ahalko dute bertaratzen direnek. Halaber, hileko lehenengo hiru zapatuetan dohako kontzertuak ere antolatu dituzte: maiatzaren 4an (12:00) Txiki MAZ ekitaldia egongo da (oraingoz zehaztu barik), maiatzaren 11n (19:00) Sr. Chinarrak jardungo du modu akustikoan, eta maiatzaren 18an (19:00) Jero Romero hirukotea izango da oholza gainea. ○

Info+: www.mazbasauri.com

kontzertua > Columpio Asesino

Orain dela 10 urte baino gehiago sortutako talde iruindarrak zuzenekoak eskainiko du Ereaga hondartzako aparkalekuan maiatzean. El Columpio Asesino taldearen aurretik, orain bizpahiru urte Algortan Maren Goienaga, Inhar Endaya, Asier Pomposo eta Javier Gangoitik sortutako Hamaiketan taldearen rock alternatiboko doinuak gozatu ahalko dute hilaren 4an, 21:00etan (sarrera doan) Ereagako aparkalekura bertaratzen direnek. Horien ostean, Alvaro Arizleta, Raul Arizleta, Iñigo "Sable" Sola, Cristina Martinez eta Daniel Uleciak osatzen duten talde nafar ezagunaren rock, punk, pop eta elektronika doinuen buztarketa entzuteko aukera egongo da.

Info+: www.myspace.com/ha11aikaeta
www.elcolumpioasesino.com

kontzertua > Lindegaard gogoan

Urtero legez, Getxoko Jazzaldiaren sorrerako bultzatzaileetako izan zen Pio Lindegaarden omenezko kontzertua izango da apirilaren 27an, zapatua, 20:00etan Areetako Andres Isasi musika eskolan (sarrera: 12 euro / daborduko salgai). Per Erik Lindegaard Gredsted-Larsen (Amorebieta 1920-Getxo 1999), lagunartean eta oro har Pio Lindegaard, daniar-zornotzar musikologo eta jazz zale amorratuari gorazarre egin asmoz, Nnenna Freelon (Massachusetts, AEB, 1954) abeslari eta kantautore estatubatuarrek kontzertua eskainiko du Getxon.

diskoak

Instroak Vol. 2
Joseba B. Lenoir
Gaztelupeko Hotsak



Bartzelonan bizi den Joseba B. Lenoir (Joseba Balezte-na) musikari beratarren bigarren lan honetan blues, folk eta rock doinuak dira nagusi. Bederatzi abestik osatzen duten diskoa etxeko estudioan grabatu du eta besteak beste, Felix Buff, Raul Garcia eta Xiker Salaberria musikarien laguntza izan du.

Preguntatxo bat
Igelairen Banda
Elkar



2000. urtean sortutako taldea 2008ra arte ibili da oholza gainea; eta bueltan da orain. Hasier Oleaga (bateria), Amaur Cajaraville (kontrabaxua) eta Bixente Martinezek (gitarra) osatzen dute gaur egun taldea, eta ohi legez, euskal kantu, dantza eta musika tradizionala oinarri, bertsio barriak eskaintzen dituzte.

Natura
Saioa
Moonpale Records



Matrioska Heart plazaratu eta bost urtera aurkeztu du kantugile gipuzkoarrak 11 kantuz osatutako bigarren diskoa. Joseba Irazokik ekoizti du lana, eta diotenez: "oinarria *Slint*-en post-rock geldoaren eta *Will Oldham*-en amerikana aldrebesaren artean kokatzen da; *REM* edo *Rain Parade*-ren pop sentibiltatea, australiar garage ukituak, *black heart procession*-en tentsio iluna..."

I

*Iñaki
Bítxitegia*

OMEGA, LONGINES ET TAGHEUER
AGENZIA UFFICIALE

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellexe 1 Tf. 94 440 27 41

Algorta

Uribe Kostako koordinakunde barria > eskubide sozialen alde

“Maiatzaren 11n martxan joango gara Algortara, bertan manifestazioa egiteko”

Enplegu duina, eskubide sozialak eta ondasun-banaketaren aldeko koordinakunde sortu du eskualdeko hainbat eragilek. Asmo zehatzen barri jakin guran jo dugu eurengana.

—Koordinakunde sortu duzue, zergatik eta zertarako? Zein helburugaz?
—Azaroan eskualdeko hainbat eragile elkartu ginen Euskal Herriko lan duin eta eskubide sozialen aldeko martxa gurean antolatzeko. Positiboki baloratu eta koordinakunde sortzea erabaki genuen esperientziak trukatu, problematika komunari erantzun eta indar egiteko. Funtzioak adostuta, eskualdearen diagnostikoa zehaztu eta lanerako lerro nagusiak erabaki genituen: enplegu duina, eskubide sozialak eta ondasunen banaketa. Lan-eremu zabala da, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta hobeto; baldintza bakarrak: dekalogoarekin bat egin eta lanerako gogoia izatea.
—**Dekalogo osatu duzue, zer lanketa egingo duzue haregaz?**

—Maiatzaren 11 bitartean, gure aldarrikapenak zabalduko ditugu: eragileekin elkartuko gara dekalogoaren berri eman, atxikimendua eskatu eta ekarpenak jasotzeko, eta mobilizazioak egingo ditugu. Irailetik aurrera, atxikimendu eta kalean pilatutako indarrarekin Udaletara joko dugu neurri zehatzak exijitzeko. Hainbat kontu ez dago euren esku, Espainiatik inposatzen dizkiguten politikak direlako prekarietate, esplotazio eta bazterkeriaren sorburu, baina hori gainditzeko, lan-harreman eta babes sozialerako euskal esparrua nahitaezkoa da. Gainera, Udalek (eta hemendik kudeatzen diren beste erakundeek ere) gauza asko egin ditzakete.



Koordinakundearen aurkezpena Negurin, martxoaren 16an

—Azken aldian gisa honetako antolakundeak sortu dira, beharrezkoak dira?
—Oso beharrezkoa da antolatzea eta borrokatzea, horrela soilik lortuko dugu gauzak aldatzea. Krisia guztioi era berean kalte egiten digun naturaz gaindiko gertaera bezala saldu nahi digute, eta aitzakia horrekin prekarietatea, esplotazioa

urtean 3,02 milioi euroko bizi osorako pentsioa jasotzen du. Ondasuna egon badago, baita danok bizitza duina izateko aurkera ere, baina ez digute oparitu; borrokatuz eskuratu behar da.
—**Maiatzean martxa egingo duzue?**
—Maiatzaren 11n bi martxa egingo dugu: bata Erandiotik aterako da, bestea

“Uribe Kostan 11.384 pertsona langabezian dagoen bitartean Bankiako presidenteak urtean 3,02 milioi euroko pentsioa dauka”

eta bazterkeria bultzatzeko neurriak inposatzen ari dira. Egoerak erantzuleak ditu eta gutxi batzuek gainontzekoon miseriak aberasten jarraitzen dute. Adibide asko dago Uribe kosten: 11.384 pertsona langabezian dagoen bitartean eskualdean bizilekua daukan Jose Ignacio Goirigolzarri Bankiako presidenteak

Urdulizetik; biak Algortan elkartuko dira manifestazioan. Bi helburu daukagu: batetik, ahalik eta leku gehien gure aldarrikapenekin busti; bestetik, arestian azaldu hiru arloetan lanean ari diren eragile eta pertsona guztiak elkartu, eskubideak aldarrikatzetik eskuratzerako urratsa emateko indarra pilatzeko. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Tartalo. Ilustrazioa: Daniel Castello

Tartaloren olerkiak

Begi bakarreko erraldoia zara.
Zure eremua defendatzen duzu
gizaki okupatzaileen aurrean.

Askoz gehiago direnez
hasi aurretik
borroka galduta dago.

Zure lurraldean sartzen dira,
zure ardiak harrapatzen dituzte...
Zer egin dezakezu?

Baina hamar, hogeia,
berrogeita sei gizon
eramango dituzu zurekin
infernura!!

Ez izan zalantzarik,
haien kontra jo,
haiek baitira piztiak.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezzi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx. txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA JATETXEA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

[pintxo**tan**]

Arrautza patatakaz

ohiko jakiak pintxo bihurtuta



Hirugiharra, patata frijtuek eta arrautzak hanburgesaen itxura ematen diote pintxoari

Algortako Bodeguilla tabernatik Sopedako Laiak tabernara jauzi egin behar dugu; izan ere, bertako barran patata frijituak, hirugiharra eta arrautza frijitua daramatzen pintxoagaz egin dugu topo. Horrela, bertan, asko zoratzen gaituzten jakiak, denak batera dastatzeko aukera izango dugu. Adi, bada, pintxo gozo honi; hasteko, hirugiharra xerrak frijitu-ko ditugu. Ondoren, patata frijituak egingo ditugu, patatak baina, fin-fin ebagi beharko ditugu, eta ez desegiteko frijigailuan egingo ditugu. Hori behin eginda, pintxo eraikitzen hasi beharko dugu; ogi xafra txigortu ostean, lehenengo egindako hirugiharra eta patata frijituak jarriko ditugu. Pataten gainean, berakatzagaz, kalabazinagaz, tomateagaz,

eta piper gorri eta berdeak egingo ditugu. Horren gainean, eta pintxoari azken ukitua emateko galeper-arrautza frijitu eta pintxoaren muinean jarriko dugu. Eta pintxo dekoratu nahi izanez gero, gaintik perrexila zein piper beltza bota diezaiokegu.

Horrela, ikusi ahal izan duzun, modu azkarrean egingo dugu pintxo gozo hau; gainera, hori gutxi balitz arrautzak, patatek eta hirugiharrek sekulako ahogozoa sortuko digute ahoan, ahaztu barik, pistoaren zapora sakona. Horratz aukera, on egin! o

Osagaiak: patata, hirugiharra, ogia, olio, galeper-arrautza, tomate, piper gorria, piper berdea, berakatz, kalabazina



Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93




prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO

zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Ikasle bai, baina ez oso fina. Dana azken unerako utzi duzu, beste behin ere, eta trenak harrapatu! Azterketak hortxe daude, segi liburutegira, gaindituko duzu-eta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Negu luzearen ostean, azkenean hasi zara probetxu ateratzen zure baratzat txikiari, bejondeizula! Orain hasi zaitezke etekina biltzen: tomateak, uhazak... Zu bai azkarra!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Ederto pasa zenuen mozorro-lehiaketaren sariagaz, ondo baino hobeto! Datorren urtean irabazi gura baduzu, hobe izango da mozorroa orain pentsatzen hasia...

META



(Irailak 17 urriak 16)

Pozarren zabilta loreak ateratzen hasi zirenetik, egun osoa zelaetan txakurra alboan. Primeran, baina gogoratu lana ez dela bere kabuz egiten: behintzat, agertu bulegora noizean behin.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Apirila beti bezain eurtsu aurren ere, eta daborduko nazkatuta zaude. Esan zizuten, bada, oportetan joateko Karibe aldera, han badago-eta eguzki ederra. Segi maleta egitera!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Eguzki izpi bat ikusi, bero apur bat sumatu eta hala, bazoaz uretara! Baina oraindino ez da sasoia eta hotz dago ura. Segi sikatzera, gaixotuko zara bestela. Ipurterre hori...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Aspaldi urten barik eta gogotsu hartu zenuen zapatuko afaria. Daborduko ez zara atzoko gaztea eta bihamunean ondorio latzak: kirolean legez, parrandarako ere entrenatu behar...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Gure Marijaia, zuretzat beti da une aproposa dantzarako zapatak jantzi eta erromeriar joateko. Bada, zorioneko zaude, laster dotoz Herri Urrats eta Ibilaldia: gorde datak agendan!


ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Aste Santuan atsedean hartu eta alferkerian segitzen duzu: oporrak udara arte luzatu guran ala? Guztiok gura genuke, bai, baina norbaitek egin beharko du lan...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Udabariak indartsu harrapatu zaitu eta ezin hobeto hasi duzu, parrandaz parranda, ligatu eta dana egin duzu! Bada, hasi bezain ondo amai dezazula opa dizut. Eutsi horri!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)


Sagardotegirako sasoia amaitzeaz da eta oraindino ez zara joan. Azkar ibili beharko duzu, sagardoa kupelatit zuzenean probatu gura baduzu. Segi azkar Astigarraga aldera!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Gogaituta zabilta azken aldian, ez zaituzte asetzen ez lagunek, ez lanak... Beraz, aldaketarako unea da! Aldatu etxea, lagunak, lana... Edo hartu bizikleta eta zoaz mundua ezagutzera!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan





Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Sudoku hauetan irudiek hartu dute zenbakien lekua. Gogoan har egizu irudi guztiek azaldu behar dutela zutabe, lerro eta azpilauki bakoitzean.



Soluzioa

▽	■	◆	●
●	◆	■	▽
◆	●	▽	■
■	▽	◆	●

●	▽	◆	■
■	◆	▽	●
▽	●	■	◆
◆	■	●	▽

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

*Zenbat argazki daude
Fotografia atalean?*

- 100dik behera
- 100dik gora
- 18

La Gusana liburudenda SARIA
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Makalak
> Irabazlea: **Peio Lasa***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Oinutsik*
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Xabier Payak
> Irabazlea: **Arantz Lasa***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ITXAS-ARGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOKO ITXAS-ARGIA DANTZA TALDEA GATIKAN, 1980-04-25

Gatikako San Marko jaiak herriko jai nagusiak dira, abuztuko San Bartolome jaiak baino garrantzitsuagoak. Datorren 25ean, 33 urte beteko dira Itxas-Argia dantza taldea, neskak eta mutilak (nahiz eta argazkian neskak bakarrik agertu), Gatican egon zenetik. Meza Nagusiaren ostean, Santa Maria elizaren ondoko frontoian izan zen ekitaldia, bertakoa duzu argazkia. Orduko harakinek ere ospatzen zuten egun hori, San Marko patroitzat baitzuten.

Garai hartan gure dantza taldeak ekitaldi asko izaten zituen maiatzetik abuztura, batez ere Bizkaian, baita Gipuzkoan ere. Jesus Mayor zen (eta da) taldeko txistularia eta Paulino Azkue dantzan irakasten ziena. ○

Zutunik: Izaskun Peraita, Miren Bego Madariaga, Josune Madariaga, Mertxe Aresti.
Makurtuta: M^a Angeles Gil, Inmaculada Ellosegi, Nekane Madariaga, Miren Rodriguez.

IÑAKE IRASTORZA ZULAIKA > aktorea

“Dagoen iruzurrarekin benetako justizia egitea nahi nuke”

Testua: Zuberoa Iturburu Argazkia: Alberto Alba



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Ezinezkoa da: hori besteek egin beharko lukete, oso zaila da-eta norberak definitzea bere burua.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Gauza asko gustuko dut, baina oso pozik nago egiten dudanarekin.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?
Politikari maltzurra ez nuke izan nahi.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?
Lagun on bat.

Eguna ala gaua? Zergatik?
Biak, biek dituztelako aprobeztatzeko une egokiak.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Merkeegi, alperrik, nahita edo beharrik gabe mina eragitea baten bati.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Asko, baina ez dira konfesatzekoak...

Oihukatu duzun azken aldia?
Manifa batean, etxe-desjabetzen kontra.

Zer barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Dagoen iruzurrarekin eta iskanbilarekin benetako justizia egiten dela.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?
Ez naiz gogoratzen, txikia izango zen-eta!

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Orioko Anarri parajea, itsasertzean; eta kostako edozein txoko polit.

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?
Alperrikako hainbeste galdera dago! Askori ez nioke erantzungo, edo askori ez niokeen erantzun behar eta erantzun diot; gerora pentsatzen dut: zergatik erantzun diot galdera horri. o

LABURREAN— Izugarri gustuko zuen antzerkia eta zinema Iñake Irastorzari gaztetan (Orio, 1955), baina garai hartan gauza gitxi egiten ei zen arlo horretan. Halere ibiltzen zen handik hona antzerkia ikusten eta, 17 urte inguru zeukala, Bertolt Brecht-en lan bat ikusi zuen Donostian: orduan garbi izan zuen noizbait antzerkia egingo zuela. Eta apurka-apurka hasi zen horretan. Gaur egun telebistako aurpegi ezaguna dugu, izan ere, ETB1en makina bat pertsonaia antzeztu du *Wazemank* eta antzeko saioetan; oraintsu *Kontuz Atsuak!* egiten du Anjel Alkainegaz batera. Gainera, taulaz taula dabil *Emaztegaiaren semea* lana antzezten. Ametsa bete du, beraz, antzezale gazte hark!



info +:




Behars@rea Bizkaia: www.beharsarea.net

Behars@rea Erandio: www.beharsarea.net/Erandio/

Behars@rea Leioa: www.beharsarea.net/Leioa/

Behars@rea Getxo: www.beharsarea.net/Getxo/



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ArgiHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilariaren izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez.

Laburra: 100 hitz gehienez.

ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.egizu.org/literatuta/argihizkiak

info+: argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

EPEA

Maiatzaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean
(biak barne).



URIBE KOSTAKO
ALDIZKARIA

